ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2007ko irailaren 3a > Astelehena > III. urtea > 156. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net

"Onena da oporren eta lanaren arteko haustura ez izatea bat-batekoa"



Eusebio Gonzalez > 06

**G2a** Bihar aurkeztuko dute Iparraldea Oñatin jaia > 23

**BERGARA** Etxera doazen sahararrei despedida egin zieten atzo > 11

**ELGETA** Sagardo Eguna antolatzen hasi da herriko Gazte Batzarra > 14

**POESIA** Maite Toledo antzuolarrak parte hartuko du errezitaldi baten > 24

**FUTBOLA** > TXAPELKETA

## Arrasate Hiria saria, etxean

Mondrak irabazi du Arrasate Hiria saria, Mojategin jokatu den lehena > 17

**KIROLA** > FUTBOLA

## Derbi historikoa Ipuruan

Zapatuan, bigarren mailako derbia jokatu zen Ipuruan: Eibar-Real. Futbol zelaian, ibarreko jokalari bat izan zen, Jon Urtzelai oñatiarra, Eibarko kamiseta defendatzen. Realean, Mikel Gonzalez arrasatearrak ez zuen jokatu, eta Eibarko jokalari Mikel Etxabe aretxabaletarrak ere ez, min hartuta dagoelako.> 15




**DESBIDERAKETA** Eibar-Gasteiz autobidera sarrerak itxita egon ziren 14:00etatik 18:30era; argazkian, Arrasateko sarrera. JOSETXO ARANZABAL

**GERTAKIZUNAK** > LEHERGAILU ABISUA

# AP-1 itxita egon zen bonba abisu batengatik

**LAU BAT ORDU** Ertzaintzak eta Bidegik itxita izan zuten Eibar-Arrasate tartea lau bat orduan

**BAKARRA** Bost errepidetan bonbak ipini zituela abisatu zuten; bakarrak leher egin zuen, Errioxan > 05

Itxita egon zen atzo 14:00etatik 18:30era AP-1eko Eibar-Arrasate tartea, bonba abisu batengatik. Norbaitek Donostiako DYAra dei egin zuen, ETAk bost errepidetan lehergailuak ipini zituela abisatzeko; tartean, AP-1en, Bergaran. Zorionez, han eztandarik ez zen egon, baina errepidea itxita egon zen ia lau ordutan, eta, gidari askorendako udako oporren bukaera zela kontuan hartuta, traba eta nahastea sortu ziren.

**ARETXABALETA** > OBRAK

## Bidegorria ia bukatuta utzi dute

Lan txiki batzuk falta dira, eta bidea erabil daiteke > 13

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 07-08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**TURISMOA** > UDA

## Inoiz baino turista gehiago

Inoiz baino bisitari gehiago etorri dira udan Debagoienera, batez ere, Oñatira; 5.000 bat lagun joan dira horra. Baina udako izarra Arrikrutzeko koba izan da: 9.000 bisitari erakarri ditu, Euskal Herrikoak eta kanpokoak. > 02-03

**ARRASATE** > AHT

## Udal bat, AHTren aurka

Arrasateko Udalak AHTren inguruko ezohiko osokoa egin zuen. Udalak proiektuarekiko dauzkan desadostasunak jasotzen dituen idatzia aurkezteko bozketa egin zuten, eta, Udal moduan, AHTko lanak oztopatzea erabaki zuen. > 09



**AISIALDIA** > TURISMOA UDAN

# Turistak txoko askotatik Debagoienera bisitan

**OÑATI** Ibarrean bisitaririk gehien jaso dituen herria Oñati izan da; Turismo Bulegoan hartutako turista kopuruak iazko emaitzak gainditu ditu

**KATALUNIARRAK** Aurreko urteetan bezala, turista gehienak Kataluniakoak izan dira; hori esan digute Oñatin, Leintz Gatzagan eta Eskoriatzan

**EGURALDIA** Uda partean, eguraldia lagun izan ez arren, euria eta hotza ez dira oztopo izan turistak Debagoienera bisitan etortzeko

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Ondo bizi izateko, apaizaren lana, maisuaren oporrak eta militarraren jornala jotzen ditu egokitzat atsotitzak. Lan egin eta jornala eskuratu ostean, uda oporretarako aprobetxatzen du askok eta askok. Guretik kanpora joaten gara bidaian, eta turista modura gurera etortzen dira beste asko. Aurten ere, Debagoieneko txoko esanguratsuenetan ez da bisitaririk falta izan.

Oñati izan da ibarrean turista gehien jaso dituen herria. "Iazko emaitzak gainditu ditugu, bisitariei dagokienez, eta oso pozik gaude. Buru-belarri jardun dugu lanean, eta jendea oso gustura geratu da bisita gidatuekin, bai herrian bertan, unibertsitatea eta eliza ikusteko egindakoekin, baita Arrikrutzekoekin ere, hara ere jende asko joan da-eta. Ohiko eskaintzaz gain, aurten egin dugun eskaintza berria izan da Arrikrutzekoa; hortaz, bisitari asko bideratu dugu bertara, erretserba asko hemendik egin ditugu eta jendea animatu dugu bertara joan zedin. Natura Eskolak antolatutako ibilbideetan ere jende askok hartu du parte. Turismo bulegoan inkesta egiten dugu jakiteko jendeak gustuko izan duen bai herria eta baita bisitak ere, eta puntuazio oso altuak jaso ditugu", esan digu Oñatiko Turismo Bulegoko Iñaki Igartuak.



**BISITARIAK** Oñatiko Turismo Bulegoko Iñaki Igartuak Frantziatik etorritako turista talde batekin bisita gidatua egin zuen zapatuan. JOSETXO ARANZABAL

**KATALANAK, GEHIEN**

5.000 lagun inguru joan dira Oñatira, turismo bulegoko datuen arabera, eta horietatik 1.500ek bisita gidatuak egin dituzte. Kanpotarren artean, katalanak izan dira gehienak, ia 800; Madrildik ia 400 eta Valentziatik 250.

Iñaki Igartuak ere hala esan digu: "Kataluniatik, iaz bezala, aurten ere jende asko etorri da, baita Valentziatik ere. Bestalde, nabaritu dugu bisita gidatuetan ingelesez eta frantsesez egindako bisiten gorakada izan dela.

**Oñatin, frantsesez eta ingelesez bisita gidatu gehiago egin dituzte aurten**

Londrestik, Alemaniatik, AEBetatik, Frantziatik…etorri da gurera jendea. Badago nazioarteko turismo gida bat, *Lonely Planet* deitutakoa, eta bertan agertzen da Oñati Gipuzkoako herririk polientenetarikoen artean. Horri erreparatuta, jende asko etortzen da atzerritik, batez ere. Gehienak unibertsitatea eta eliza ikustera etortzen dira eta, gero, Oñatiko beste eskaintzen berri ematen diegu: Natur Eskolako ibilbideak, Arrikrutz eta Arantzazu".





Eguneko menua
Domekan itxita
Maulanda Auzoa ESKORIATZA Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

Atzerritarrez gain, euskaldunek ere erakutsi dute Oñati ezagutzeko interesa. 1.700 euskaldunek bisitatu dute aurten Oñati. Herria zaintzen gelditu diren oñatiar askok ere euren herriko txokoak hobeto ezagutzeko bisita gidatuak egin dituzte udan.

**ARRIKRUTZ, IZARRA**

Ekainaren 8an ireki zuten Arrikrutzeko koba eta, abuztua amaitzerako, 9.000 bisitaritik gora izan da bertan. Gipuzkoarrak izan dira bisitari gehienak: Donostia, Hondarribia eta Zarautz ingurutik jende asko etorri dela azaldu digute arduradunek. Oñatiko jende askok ere abuztuko oporrak aprobetxatu ditu kobak ezagutzeko. Espainiatik ere jende asko etorri da, bereziki, Katalunia, Zaragoza eta Madrildik. Egunero, batez beste, bost edo hamar katalanek bisitatu dituzte kobak. Australia, Mexiko, Estatu Batuak, Italia eta Frantziatik ere etorri da jendea.

Eguraldia eta hainbat zerbitzu izan ohi dira turisten kezka sortzen dutenak, baina Iñaki Igartuak eguraldia ez du traba moduan ikusi turistak erakartzeko: "Eguraldiak ez du aparteko eraginik izan turismoan. Beroarekin zein euriarekin, bietara, jende asko etorri da. Askotan esaten da eguraldi txarra egiten duenean aprobetxatzen duela jendeak barne turismoa egiteko eta monumentuak ikusteko, baina gurean ez dugu horrelakorik nabaritu".

**JATETXE BATZUK, ITXITA**

Jatetxe eta tabernak udan zabalik egotea edo ez egotea izan ohi da udako beste hizketarako gai bat. Iñaki Igartuaren esanetan, "jatetxeena betiko kontua da: batzuek zabaldu egiten dute, eta beste batzuek oporrak hartzen dituzte. Bulegora datozenei jatetxeen zerrenda ematen diegu, prezioekin eta zabalik edo itxita dauden esanez. Eskaintza egon da, baina nik uste dut jatetxe gehiago zabalik izatea hobea litzatekeela turistendako".

Gipuzkoako Ostalarien Elkarteko kide da Antton Elortza oñatiarra, eta abuztuan taberna itxita izan duela esan digu. Hala ere, jakin badaki Oñatin zabalik izan diren taberna eta jatetxeetan gogor lan egin dutela. Maiz entzun izan dituzte jendearen kexak oporretan taberna ixtearren, baina horren gaineko azalpena eman digu Antton tabernako nagusiak: "Kontuan izan behar da, Oñatin eta Arrasaten, jatetxeetan, langileen arabera lan egiten dugula gehienetan. Hortaz, langileek jai hartzen dutenean, guk ere hala egiten dugu. Bestalde, tabernari gazte askok semealabek oporrak hartzen dituztenean ixten dute taberna. Bakoitzak bere egoeraren arabera hartzen du erabakia".

Antton Elortzak esan digu azken urteotan Udalak zein Turismo Bulegoak esan izan dietela tabernariei komeni dela oporretan jatetxeak zabalik izatea, eta ados jartzea txandakatzeko. "Horretarako, eurek ere zerbait eman beharko ligukete, ostalariondako eragingarria den zerbait; epe bateko argindarra ordaintzea, edo IBIrik ez ordaintzea, esaterako. Izan ere, aurtengoa moduko uda batean, eguraldi eskasarekin, jenderik ez etorri arren, langileei ordaindu egin behar zaie", dio Antton Elortzak.

Ostalari honen ustez, ikusgarriak diren txokoak dituen arren, "turismoari dagokionez, oraindik egonkortu gabe dagoen ingurua da gurea. Uda partean herria ikusi ostean, berandu etortzen dira pasadizoan dauden turistak menua jatera, eta langile guztiei ordaintzeko adina hortik ateratzea ez da erraza".

**GATZ MUSEOA ETA IBILALDIAK**

Leintz Gatzagako Gatz Museoa da ibarrean turistak erakartzen dituen beste guneetako bat. Bisitari kopuruari dagokionez, ezberdintasunik ez dutela nabaritu esan digute, 500 inguru izan dira.

**"'Lonely Planet' gidan Oñati Gipuzkoako herri politenen artean dagoelako atzerritar asko etortzen da"**

**"Jatetxe askok langileen arabera lan egiten dugunez, udan horregatik ixten da"**

**"Ibar osorako egongo balitz turismoaren gaineko planik, egingo genuke beste zerbait Gatzagan"**

Hala ere, "aurten, talde handi asko izan ditugu, Euskal Herrikoak, batez ere; besteak beste, kultura taldeetatik etorritakoak, Bestalde, aurreko urteetan bezala Kataluniatik etorri da kanpoko bisitari gehien", esan digu Gatzagako Labideako langile Aitziber Gorosabelek. Museoa bisitatzeaz gain, mendi ibilbideen gaineko informazioa ere eskatzen dutela azaldu digu. Turistek ostatu non hartzen duten ere galdetu dugu Labidean: "Gaztainuzketan edo Aterben lo egiten dute batzuek, baina badago jende asko beste herri batzuetatik datorrena, ibarretik bertatik edo aurten, esaterako, Donostia inguruan ostatu hartu eta hona etorri direnak izan dira".

Gatzaga inguruan turistek gustukoen zer duten galdetuta, Aitziber Gorosabelek zera esan digu: "Lekua bera dute gustuko, eta esaten digute, hain herri txikia izanda eta hain biztanle gutxi egonda, nolako bizitasuna duen. Bestalde, txunditzen dira jakinda ez dela udaldirako leku bat, baizik urte osoan barrena bizi izateko herri bat".

Uda eta oporren amaieran Aitziber Gorosabeli galdetu diogu ea aurrera begira turismo asmo berririk baduten. "Oraingoz, ez dakigu. Ibar osorako egongo balitz turismoaren gaineko plangintzarik, beharbada egingo genuke zerbait, baina, bakarrik, oso zaila da. Gainera, Gatz museoa urte guztian dago zabalik, eta hilabete bakarrarengatik ez dugu dena aldatuko".

**IBARRAUNDIN, 200 BISITARI**

Eskoriatzako Ibarraundi museoa da bisitarako beste toki bat, eta udan 200 lagun inguru gerturatu dira. Museoko langile Saioa Altzuak esan digunez, "urtean barrena, beharbada, gehiago izaten ditugu, eskoletatik talde asko etortzen direlako, baina udako bisitari kopurua ere ez da txikia. Euskal Herritik etorri da jende gehien, baina kataluniarrak ere asko izan dira. Turista gehienak Mendigoia hotelean egoten dira, eta horiek pasadizoan etortzen dira. Ingurukoek, berriz, han edo hemen museoaren berri irakurrita egiten digute bisita".

Ibarraundin, turistei informazioa ere ematen diete: "Ibarreko mapa ematen diegu, eta herri bakoitzean ikusteko interesgarria zer den azaltzen diegu".

Turismoa ibarrean pixkanaka gora doala esan digu Altzuak. Eguraldiak eraginik duen ala ez galdetutakoan turisten esanak gogorarazi dizkigu: "Valentziatik etorri ziren batzuk eguraldi txarra egiten zuen egun batean, eta esan zidaten eskertzen zutela horrelako giroa, han nahikoa bero pasatakoak zirelako; Galiziatik etorritako beste batzuek, aldiz, horrelako eguraldiarekin ohituta daudela esan zidaten".

Oporrak amaitu dira gehienondako eta turistek ere alde egin dute denboraldi baterako. Hala ere, oraindik bada aukerarik ibarrekoendako inguruko txokorik esanguratsuenak ezagutzeko. Hurrengo udara arte zain egon beharrik gabe turisten pare ipintzea nahikoa da horretarako.

## Azkoaga Enea hotela uztailean zabaldu zuten, eta aurki irekiko dute Santa Ana

Turistak ibarrera etortzen direnean, lotarako hainbat aukera izan ohi dituzte: landetxeak, ostatuak edo hotelak. Oraingo udatik aurrera, aukerak gehiago izango dira ibarrean. Izan ere, uztailaren 30ean zabaldu zuten Eskoriatzan Azkoaga Enea hotela, eta aurki, Arrasateko Uribarri auzoan, Santa Ana hotela zabalduko dute. Biak ala biak hiru izarrekoak dira, aintzinako eraikin berrituetan kokatuta daude eta jatetxea daukate.

Azkoaga Enea hotela uztailean zabaldu zuten eta, esan digutenez, jendea ibili da abuztuan. "Oraindik ezagutarazteko lan apur bat egin behar dugu, eta espero dugu irailetik aurrera jende gehiago etortzea. Aste barruan, enpresetako jendea etorriko dela uste dugu, baina, aste bukaeretan, beste mota bateko jendea. Horiek erakartzeko, hainbat eskaintza berezi egingo ditugu: enoturismoa, bizikletak...", esan digu Gurutze Arregik. Valentin Gomez jabe duen hotela Eskoriatzako erdigunean kokatua dago eta 14 logela ditu.

Udalarako bidean, Arrasateko Uribarri auzoan, dago Santa Ana hotela. Izen bereko baserria berritu du bertako seme Iñaki Pildainek, eta, ohea ez ezik, urte luzetan Bergarako Lasa jatetxean hartutako esperientzia ere erakutsiko du hotel berriko sukaldean; izan ere, 65 lagunendako jangela du.



Valen Gomez Querejeta eta Gurutze Arregi hotelaren aurrean. GOIENKARIA



Merkatuko lehen markak
Mota askotako estiloak
Gremioen koordinazioa
PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA
Telleria 23, D5 pabilioia
Labegaraieta Industrialdea BERGARA
Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44
www.iparproject.com



**AZPIEGITURAK** > AP-1 AUTOBIDEA

# Zerbitzugunea, Arrasaten eta Eskoriatzan, lehiaketara

## Autobideko lehenengo zerbitzugunea Arrasateko eta Eskoriatzako bi gunek osatuko dute

## Arrasateko zatia izango da handiena, 22.184 metro koadrorekin; Eskoriatzakoak 6.000 izango ditu



**ESKORIATZA** Uztarretan egingo dute zerbitzugunearen zati bat. JOSETXO ARANZABAL

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

AP-1 autobideko zerbitzugune bat Arrasaten, Osinan, eta Eskoriatzan, Aingeru Guarda baserriaren eta Olaeta auzoaren artean, Uztarretan, egongo da. Bi instalazio horiek osatuko dute zerbitzugunea, izan ere, Arrasaten, Eibarrera noranzkorako zerbitzuak ipiniko dituzte, eta Eskoriatzan, Gasteizera noranzkokoak. Hala zehazten du Bidegi enpresa publikoak zerbitzugune horren proiektua idazteko, eraikitzeko eta mantentzeko deitutako lehiaketan. Berau abuztuan atera zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta lehiaketa zabalik dago irailaren 24ra bitartean.

Horrekin batera, A-8 autobideko zerbitzugune baten lehiaketa deialdia egin du. Bi guneondako proiektu bakarra aurkeztu ahal izango da, edo banakakoa. Irailaren 28an irekiko dituzte aurkeztutako proiektuak.

**EZAUGARRIAK**

Osinan, autobideko 17,580 puntu kilometrikoan, eraikiko dute Eibarrera noranzkoan doazenendako atsedengunea. Handiena izango da, 22.184 metro koadro hartuko ditu eta. Uztarretan, 24,950 puntu kilometrikoan, Gasteizera noranzkoan doazenendako atsedengunea izango da, askoz txikiagoa, 6.000 metro koadrokoa, hain zuzen ere.

Lehiaketara aurkezten diren enpresek zerbitzugunearen proiektua idatzi beharko dute; eraiki egin beharko dute, esplotatu, eta mantendu ere. Horrenbestez, eraikitze proiektuaz gain, esplotazio proiektua eta aurreikuspen ekonomikoak idatzi beharko dute lehiaketarako.

Gutxienez, honako zerbitzuak derrigorrez eman beharko ditu esleipendunak: depositua betetzeko estazioa –erregai ekologikoak derrigorrez eskaini beharko ditu, besteak beste–, dendarekin eta bulegoarekin; kafetegi-taberna, zerbitzuguneko alde bakoitzean, eta, nahi bada, denda edo supermerkatu txiki bat ere; zerbitzu publikoak –komunak, telefonoak eta Internetera sarbidea–; turismo informazio gunea; kamioiendako eta ibilgailu arinendako aparkaleku bana; atseden lekua; meriendatzeko lekua; autokarabanen depositua husteko lekua; eta lehiakideek ondo ikusten dituzten beste zerbitzu batzuk.

Atsedenguneko zerbitzu guztiak urte osoan, 24 orduz zabalik egon beharko dira, eta kalitate maila beti egokia izan beharko dela zehazten du Bidegik. Oxinalderen kasuan, baldintza hori inauguratzen den unetik egongo da indarrean; Uztarretaren kasuan, A-8ko zerbitzugunea zabaltzen denean izango du baldintza hori.

**EPEAK**

Behin kontratua esleituta, irabazleak hiru hilabete izango ditu eraikuntza proiektua aurkezteko. Handik hilabetera, gehienez ere, Bidegik onartu edo errefusatu egingo du proiektua; bigarren kasu horretan, enpresak beste hilabete izango du proiektua zuzentzeko. Proiektua onartzen denetik hilabete batera, asko jota ere, lursailak enpresaren esku utziko ditu Bidegik, eta handik aurrera hasiko dira lanak.

Modu batera edo bestera, lehiaketa deialdiak zehazten du zerbitzugunea 2008ko urtarrilaren 1ean zabaldu nahi dela, "edo, bestela, dagoen zatia irekitzen denean". Enpresak 20 urtez ustiatuko du zerbitzugunea.

### LABUR

**> LEHENENGOA**
AP-1ek izango duen lehen zerbitzugunea izango da Arrasate eta Eskoriatzakoa.

**> KOKAPENA**
Arrasateko aldea Osinan egongo da, 17,580. puntu kilometrikoan, Eibarrera noranzkoan; Eskoriatzakoa Aingeru Guarda eta Olaeta artean, 24,950. puntu kilometrikoan, Gasteizera noranzkoan.

**> HEDADURA**
Arrasateko zatiak 22,184 metro koadro lur hartuko ditu, eta Eskoriatzakoak, 6.000.

**> ZERBITZUAK**
Hainbat motatako erregaiak, kafetegia edo taberna, denda, telefonoa, Internet... izango ditu.

**> MUGAEGUNA**
Irailaren 24an ixten da lehiaketa.



**GERTAKIZUNAK** > LEHERGAILU ABISUA

# Autobidea, itxita bonba abisu batengatik

AP-1 itxita egon zen Eibartik Arrasatera atzo arratsaldean, norbaitek ETAk lehergailua ipini zuela jakinarazi ondoren



**HUTSIK** Eibartik Arrasatera arteko autobideko zatia itxi egin zuten atzo arratsaldean. JOSETXO ARANZABAL

**A.G.** > BERGARA

Sustoa eta zirkulazio trabak izan zituzten atzo Debagoieneko eta kanpoko askok, izan ere, lehergailuak jarri zituela abisatzen deitu zuen ezezagun batek, ETAren izenean, Donostiako DYAra, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak jakinarazi zuen moduan.

Lehergailuok 15:00ak eta 17:00ak bitartean eztanda egingo zutela jakinarazi zuen dei egileak. Hain zuzen, leku horietako bat Bergaran zegoen, Osintxu parean, AP-1 autobideko zazpigarren kilometroan.

Zorionez, azkenean sustoan geratu zen dena. Hori bai, zirkulazioa eten egin zuten ertzainek eta Bidegiko langileek 14:00etatik 18:30era bitartean. Hala, irudi bitxi bat ikusi ahal izan zen: autobidea, Eibartik Arrasateraino, zeharo hutsik, kontuan hartuta udako opor bukaera egunak zirela gidari askorendako.

Dei egileak beste lau errepidetan lehergailuak zeudela esan zuen: Araban, Kantabrian, Errioxan eta Burgosen. Azkenean, Errioxakoak bakarrik egin zuen eztanda, Fuenmayorren. Ez zuen kalterik egin.

**HEZKUNTZA**

## MU, diseinu eskolen Cumulus sarean

**L.K.** > ARRASATE

Mondragon Unibertsitatea nazioarteko diseinu eskolen Cumuls sareko kide da abuztu hasieraz geroztik.

Cumulus sarea 1990ean sortu zuten Helsinkiko eta Londresko unibertsitate banak, Austria, Alemania, Holanda eta Danimarkako beste unibertsitate batzuekin. Mundu osoko 124 eskolak osatzen dute gaur egun.

Mondragon Unibertsitateak hamarkada bat darama Industria Diseinua lantzen, eta esperientzia hori izan da sarean sartzeko oinarri bat.

MUri aukera berriak sortu zaizkio: batetik, bere lana munduan hobeto ezagutaraztea; bestetik, hemengo ikasleak atzerrira joateko erraztasunak.

**Nikolas Segurola** > Gipuzkoako Artzain Eguneko antolatzaileetako bat

# "Euskaldunok ez ginateke berberak izango latxarik gabe"



Nikolas Segurola. GOIENKARIA

**LEIRE KORTABARRIA** > OÑATI

**Gomistegiko Artzain Eskolako arduradun Nikolas Segurola izan da aurten ere Artzain Eguneko antolatzaileetako bat, hasieratik egin duen bezala. Debagoienetik kanpo, Legazpin, egin dituzte ekintzak eguenean eta atzo. Ibarreko parte-hartzaileak ere izan dira.**

**Zer moduz joan da aurtengo Gipuzkoako Artzain Eguna?**

Oso ondo. Aipatzeko moduko gauza batzuk egon dira: besteak beste, enkantean, bost bildotseko taldearengatik 1.200 euro ordaindu dute; bestetik, aurtengo omenduak, Ander Manterola Labayru Institutuko zuzendaria, eta AEBetan zein hemen artzaintzan lan egin duten lau bikote gipuzkoar.

**Gazta lehiaketan, debagoiendarrek izan dute zeresanik...**

Gomistegikook, aurten, ez dugu lehenengo hamarren artean egoterik lortu. Hala ere, Urbiako bi gaztagile saritu dituzte: bigarrena, Etxezarreta, eta hirugarrena, Aranburu.

Baina debagoiendarrek zeresan handia izan dute beti; besteak beste, Juan Zelaia edo Bittor Gomistegi omendu izan dituzte. Bestetik, aurten, ardi latxaren gaineko hitzaldiaren ataria Artzain Eskolako kide batek idatzi du; omenduei bertsoak ere ikasleok idatzitakoak dira...

**Oñatin daude Artzain Eskola, nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa... Artzain Eguna, berriz, ez da Oñatin egiten.**

Ez. 80ko hamarkada hasieran hasi ginen ospatzen; Euskal Herri osoko artzainen ospakizuna zen, eta Oñatin egiten hasi ginen. Asmoa beti Oñatin egitea zen, baina gero, desadostasun batzuk egon ziren, eta Legazpira pasa zen.

> **"Gipuzkoako Artzain Eguna Oñatin ospatzen hasi ginen, eta asmoa beti han egitea zen"**

> **"Aurten, ardi latxaren merituak azpimarratu ditugu; gurekin 3.000 urtetik gora daramatza"**

**Ardi latxaz berba egin duzue.**

Bai. Gure ardi latxaren defentsa egin dugu aurten. Ander Manterolak hitzaldia egin zuen, eta neuk horren gainean idatzi dut. Kanpoko arrazen gainetik, latxaren merituak azpimarratu ditugu: izan ere, 3.000 urtetik gora daramatza gure ondoan. Euskal kulturarekin lotura handia du latxak, eta gure ondare garrantzitsua da. Euskaldunok ez ginateke berberak izango latxarik gabe: gastronomian, ekonomian, ingurumenean... eragina izan du. Trikuharriak zaintzen baditugu, bizirik dauden ardia eta artzaina ere ezin ditugu galtzen utzi.

AZKARATE
aroztegia
K21 KALITATEA 1 Maila
Arotz lanetan
behar duzun guztia

• Ateak
• Leihoak
• Horma-armairuak
• Tarimak
• Parketak
• Sukaldeak
Telleria 19, B-0-2 B-0-3 • BERGARA • Tel.: 943 76 47 19 / 610 884 020
www.goiena.net/blogak/azkarate

Udako oporrak amaitu dira jende askorendako eta, lanean hastearekin batera, askotan, berba egiten da opor osteko depresioaren gainean. Sasoi honetakoa den gaia edo gaitza gertuagotik ezagutu asmoz, Eusebio Gonzalez psikologoarengana jo dugu. Gonzalezek azaldu digu zer den opor osteko depresioa, baita nola aurre egin dakiokeen esan ere.

**Eusebio Gonzalez** > Psikologoa

# "Onena da oporren eta lanaren arteko haustura ez izatea bat-batekoa"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

**Arrasatearra da Eusebio Gonzalez psikologoa, eta Antzuolan eta Gasteizen du kontsulta. Medikuntza energetikoko hainbat terapia lantzen ditu, besteak beste, Bach doktorearen landare esentzien terapia eta su-jok akupuntura. Bere hitzetan, oso interesgarria da alderdi energetikoa aztertzea, prebentzioarako, batez ere.**



Antzuolako Olaran etxean dauka psikologia kontsulta Eusebio Gonzalezek. GOIENKARIA

**Zer da opor osteko depresioa?**

Jendeak izen hori eman arren, eta depresio klinikoaren hainbat sintoma izan arren, psikologook ulertzen dugun moduan, ez da depresioa. Ondoeza da berez, bai psikikoa eta baita fisikoa ere. Gogo-aldarte iragankorra da, oporretako errutinatik lanera itzultzean gertatzen dena. Oporretan atseden hartzen dugu, ordutegiak geuk moldatzen ditugu, aisialdiko ekintzak egiten ditugu... Lanera itzulitakoan, ordea, ordutegiak zurrunagoak dira, presaka bizi gara, eginbehar gehiago dugu, eta ez dugu oporretako askatasunik.

**Zein sintoma agertzen dira?**

Gaitza duena haserrekor, triste eta eguneroko lan eta eginbeharrekiko interes gutxirekin egon ohi da. Fisikoki, giharretako eta urdaileko mina, goragalea, palpitazioak, itomena, nekea, goserik eza, loezina eta kontzentrazio zailtasuna sumatzen dira. Baina sintomarik ohikoenak antsietatea, loezina eta tristura dira, dudarik gabe.

**Nori eragiten dio?**

Estatistiken arabera, langileen %35i eragiten dio, eta adin batetik gorako ikasleak ere multzo horretan sartzen dira. Adinari dagokionez, 45 urtetik beherakoak dira. Horren arrazoia da 40 urteen bueltan bizitzaren erdira iristen deneko krisia gertatzen dela. Hortaz, jendeak bizitzan hartu dituen erabaki garrantzitsuen gainean hausnartzen du, batik bat, bikote harremanei eta lanari dagozkionak. Konturatuz gero ez dituela erabaki egokiak hartu, aldatzeko garaiz dago. Ikasleei ere gehiago eragiten die. Lagunekin oporretan ondo pasatzen egotetik ordutegi zurrunetara bueltatzen direlako, zail egiten zaie erritmo horretara ohitzea. Gainera, gehien eragiten die bat-bateko haustura egiten dutenei oporren eta lehen lan egunaren artean. Esaterako, domekan oporrak amaitu eta bidaian zirkulazio handia izan ostean, etxera iritsi eta, astelehenean, goizeko bostetan lanera joaten diren horiei. Bestalde, euren lanarekin gustura ez daudenei ere eragiten die. Baina hori *burn out* sindromearen baitan kokatuko genuke, hau da, laneko arazoekin erreta daudenei gehiago eragiten die lanera bueltatzeak, eta pasa daitezke, erreta egotetik, depresio klinikoan erortzera. Hori horrela den jakiteko aztertzen dira tristura, adore gabezia, kulpa, etengabeko negarra, suminkortasuna...

**Nola egin dakioke aurre depresio mota horri?**

Onena da oporren eta lanerako bueltaren arteko haustura ez izatea bat-batekoa. Ez da egokiena 24 ordu norberarendako izatetik lanera berehala bueltatzea, baina denoi gustatzen zaigu oporrak azken unera arte aprobetxatzea. Komeni da lanean hasi baino egun batzuk lehenago herrira bueltatzea eta egunerokotasunera itzultzeko ahalegina egitea. Izan ere, bada kontzentrazio arazoak dituen jendea, edo, lanera bueltan, ez dena gogoratzen gauzak nola egin behar dituen, eta urduritu egiten da. Katean lanean dihardutenak, esaterako, ez ditu horrelako arazoak izango; bai, ordea, norbere lana edo beste batzuena antolatu behar duenak.

DEPRESIOA

**"Ondoez psikiko eta fisikoa da opor osteko depresioa; gogo-aldarte iragankorra"**

SINTOMAK

**"Antsietatea, loezina eta tristura dira, dudarik gabe, sintomarik ohikoenak "**

KALTEAK

**"Ezkutuko arazoak azaleratzen dira oporretan, lanekoak eta bikote harremanetakoak"**

**Badauka tratamendurik?**

Gehienetan, arazo horrekin kontsultara etortzen da jendea urtero eta opor sasoi guztien ostean gertatzen zaiolako; edo arazoa opor osteko depresioa baino sakonagoa denean, lanean erreta dagoenean... Baina tratamendurik onena prebentzioa da. Gero, itxoin egin behar da bi aste pasa arte, ea gehiagora doan jakiteko. Gainera, kontuan hartu behar da lanak bi funtzio nagusi dituela: dirua irabaztea, batetik, eta pertsona gisa gogobetetzea, bestetik. Lanak betetzen duen jende horri, gutxiago kostatzen zaio buelta.

**Udako oporren ostean bakarrik gertatzen da?**

Urteko opor sasoi garrantzitsuenen ostean gertatzen da: udan, Gabonetan eta Aste Santuan. Baina, gehienbat, udan izaten da, oporrak luzeagoak direlako askorendako, eta geldiunea orokorra delako. Arrasaten, esaterako, abuztuaren erdialdean, ez dago autoa aparkatzeko arazorik. Inguruan mugimendurik ez izateak asko eragiten du: lagunak kanpoan daude, taberna asko itxita...

**Luze jotzen du ala epe laburreko eragina du?**

Bi eta hamar egun artean irauten du; gehienak epe horretan ohitzen dira lanera. Hortik gorakoa izanez gero, beste depresio mota batetaz hitz egin beharko genuke. Hortaz, sendagile, psikologo edo terapeuta batengana joatea komeni da. Baina bereiztu behar dira *depre* egotea eta depresio bat izatea.

**Depresioa ez ezik, oporrek badute bestelako eragin psikologikorik, ezta?**

Bai: bikoteek, adibidez, oporretan denbora gehiago ematen dute elkarrekin, eta ezkutuan bikote arazoak badaude, egun horietan gehiagora egin dezakete. Jaiki orduko haserretzeko aukera izaten da, planak bertan behera geratzen dira... Baina arazoa ez dira oporrak; sakonean, beste arazo batzuk daude, eta oporretan gehitu ostean, banatzeko erabakia har dezakete batzuek, terapiara joatekoa beste batzuek...

**Oporrak, beraz, izan daitezke kalterako ere?**

Oporrek funtzio garrantzitsua dute, urtean geldiune moduko bat direlako, eta batzuendako, gainera, udako oporren ostean hasten da urtea. Beraz, kaltekoak ez dira, baina ezkutuan dauden hainbat arazo azaleratzeko balio dezakete, bai bikote harremanetan, baita lanean ere.

**Jende askok jotzen du psikologoaren kontsultara opor osteko depresioarekin?**

Bai, baina opor ostekoa izaten da berezko depresioa leherrarazten duena; hamar egunetan pasatzen den *depresio* horregatik ez da jendea etortzen. Beste batzuk etortzen dira lanean duen egoerarekin oso gustura ez daudelako, baina, kasu horretan, ez da depresio moduan hartzen.

## oharrak eta deialdiak

ARETXABALETA

**> Odol-ateratzea egingo dute asteon**

Osasun etxean egingo dute ateratzea, bihar, martitzena, 16:15etik 20:00etara.

ANTZUOLA

**> Kanpaldia antolatu du Arrola elkarteak**

Irailaren 8an eta 9an izango da, Aritzaleku kanpingean, Leraten. Besteak beste, Urederra inguruan ibilaldia egingo dute. Izena eman daiteke irailaren 4an, 19:00etatik 20:00etara, Arrolaren egoitzan. Prezioa da 28 euro 11 urtera artekoendako, eta 35, gainerakoendako. Lehengo eguneko bazkaria norberak eraman egin behar du.

BERGARA

**> Gazta dastatze ikastaroan izena emateko azken egun da gaur**

Irailaren 6an izango da, 19:00etan, kultura etxean. Euskaraz izango da, eta doan. Izena emateko azken eguna da gaur, astelehena. Horretarako, jo kultura etxera edo deitu 943 77 91 59 zenbakira.

ARRASATE

**> Asteon hasiko du ikasturtea Goikobalu abesbatzak**

Helduek ohiko ordutegia izango dute: martitzenetan, 21:00-22:30, eta eguenetan, 20:00-22:00, Iñaki Maidaganen zuzendaritzapean. Gazteen entseguak, berriz, eguaztenetan izango dira, 19:00-20:30, Raquel Murgiondok zuzenduta; eta Txiki-izartxoen entseguak irailaren 13tik aurrera izango dira, 18:30-19:30, Amaia Aboitizekin. Horrekin batera, interesa duten herritarrei dei egiten diete taldeotan parte hartzeko. Horretarako, Saiolan eraikineko behe solairuan egiten dituzten entseguetara joan besterik ez dute. Informazio gehiagorako: 660 80 07 91.

BERGARA

**> San Martinetako danborradarako entseguak deitu ditu Kulturak**

Haur eta nagusien danborradetan parte hartuko dutenei egiten diete dei. Entseguak izango dira irailaren 3tik 6ra eta 10etik 13ra, Seminarioko patioan. Umeen entseguak 19:00etatik 20:00etara izango dira; helduenak, 20:00etatik 21:00etara.

BERGARA

**> 1944an jaiotekoek Errioxara irteera egingo dute**

Irailaren 29an egingo dute irteera. 09:00etan abiatuko da autobusa, Fraiskozuritik; 10:30ean, hamarretakoa egingo dute upelategian; 12:45ean, Vivanco museoa ikusiko dute, eta 15:00etan, bazkaldu. Izena emateko azken eguna irailaren 17a da. Horretarako, deitu Maria Luisa Muruamendiarazi (943 76 30 88) edo Bodegon Hernandezera (943 76 20 43).

LEINTZ GATZAGA

**> Bigarren hiruhilabeteko ura eta estolderia ordaintzeko epea**

Zerga horien errolda onartu berri du Udalak, eta jendaurrean dago. Irailaren 10era bitartean ez da ordaindu behar dira; ordainagiri helbideratuetan izan ezik, udaletxeko zerga-bilketa bulegora jo behar da.

BERGARA

**> Goimendi auzoko jaietako zenbaki saritua**

Urdaiazpiko bat zozkatu zuten uztailaren 28 eta 29 bitartean, auzoko jaietan, eta jakinarazi dute zenbaki saritua 003652 izan zela. Sariduna joan daiteke saria jasotzera.

BERGARA

**> Instrumentu eskoletarako ordutegi banaketa**

Bihar, martitzena, banatuko dute instrumentu eskoletarako ordutegi berria, 16:00etan. Ikasturtea hilaren 10ean hasiko da.

ARRASATE

**> Calpera (Alacant) irteera egingo du Abaroak**

Urriaren 20tik azaroaren 3ra izango da irteera, eta prezioa, 445 euro laguneko. Prezioaren barruan daude, besteak beste, joan-etorrirako autobusa eta 14 gau hiru izarreko hotelean, otordu guztiak barne. Izenematea luzatu egin dute. Hortaz, oraindik izena eman daiteke.

BERGARA

**> EGA ikastaro trinkoa Udal Euskaltegian**

Gaur, astelehena, hasi eta urriaren 5era bitartean emango dute EGA ikastaro trinkoa, arratsaldez; ikasleen beharren arabera zehaztuko dute ordua. Izena emateko deitu, 943 76 44 53 telefono zenbakira, gaur, astelehena, edo bihar, martitzena.

ARRASATE

**> Osasunaren gaineko lau hitzaldi antolatu ditu Abaroa erretiratuen elkarteak**

Gaur, astelehena, *Alimentacion y nutricion* delakoa egingo du Jon Ariño dietistak. Bihar, *Medicamentos y autogestion* gaia landuko du Maria Bouzas medikuak; hilaren 4an, *La alimentacion como condicion de salud* gaia jorratuko dute, eta hilaren 6an, *¿Todo lo que cura es un medicamento?* 17:00etan izango dira.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

## etxeko leihotik



Leire Kortabarria
ASTELEHENEKO GOIENKARIAko erredaktore burua

# Bizitza gozatzetik ezin dugu oporrik hartu

Oporrik ez du hartzen heriotzak, eta abuztuan hil zaigu gure kolaboratzaile Jabier Arantzeta. Ez nuen bera ondo ezagutzeko aukerarik izan, baina bere izaeraren isla garbia ziren *Zorroztailea* saileko artikuluak, eta hona hemen anekdota bat: uztailean, dagoeneko oso makal zegoela, ospitalean, tokatu zitzaion artikulua idaztea, eta esan zidan baietz, egingo zuela. Fin-fin, ospitaleko ohetik idatzi zuen azken artikulua izango zena, eta faxez bidali. Ironiaz eta zirikatzeko gogoaz jarraitu zuen bukaerara arte. Bere hutsunea igarriko dugu, bai.

Ez da hori udako albiste txar bakarra izan inguruan. Inoiz baino heriotza gehiagoren berri jaso dut: baten ama, beste baten urrutiko senidea, gure bizilagun bat… Norbait hil dela jakitean, nahiz eta pertsona hori gertu-gertukoa ez izan, momentu horretan gertuago sentitzen dugu, heriotzak horixe egiten duelako: denok batzen eta parekatzen gaitu.

> "Inoiz baino heriotza gehiagoren berri jaso dut aurtengo udan, inguruan"

Ez du honek zutabe tristea izan gura. Heriotzak oporrik hartzen ez duen moduan, geuk ere ez dugu bizitza gozatzetik oporrik hartu behar, ez eta oporren zain egon disfrutatzeko: zoriontsu izateko unea orain da, eta lekua, hemen.

**> Umoregile onenek gauza tristeen gainean barrea eragiten dakite. Quino argentinarrak *Mafalda*-ren ahotan ipini zuen moduan, "bizitzaren adin onena bizirik egotea da". Horixe egia!**

**> Opor ostean, deprimituta,** **eta oporretan bertan, estresatuta egoten ei gara, oporretan zer egin, nora joan… pentsatu eta antolatu beharrarengatik. Tartean, akordatzen gara gure buruarekin?**

## debagoiendarrak kanpoan

**Xabier del Rey** > Arrasate

# "Madril hiri modernoa da; kultura aldetik eskaintza zabala ematen du"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

**Dagoeneko sei urte egin ditu Xabier del Rey arrasatearrak Madrilen bizi izaten; eta, aitortu digunez, gehiegi dela pentsatzen ere hasi da. Espainiako hiriburuko erdialdean bizi da del Rey, Florida pasealekuan, Madrilgo bihotzean.**

**Nola erabaki zenuen Arrasate utzi eta Madrilera joatea?**

Derion, marketing ikasketak egin nituen; gero, Fagor Garagartzan hasi nintzen praktiketan. Baina marketing munduko enpresa garrantzitsuenak Madril eta Bartzelonan daudenez, Madrilera etortzea erabaki nuen. Hala, Fagorrekoek Madrilera nentorrela jakin zutenean, Fagorrek Madrilen duen delegazioan lan egiteko aukera eman zidaten; komertzial bezala hasi nintzen lanean, eta lau urte egin nituen Fagorrek Madrilen duen delegazioan.

**Beraz, lanarekin Madrilera joatea abantaila izango zen.**

Bai, hori da nik ere hasiera batean pentsatzen nuena. Baina, gero konturatu nintzen konpetentzia itzela dagoela Madrilen; kontuan hartu leku guztietatik etorritako jendea dagoela hiriburuan.

Gainera, ni ez nengoen marketing departamenduan lanean; hortaz, nirean lana aurkitzea zaila izan zen.

**Aldaketa handia izan zen Arrasatetik Madrilera joatea?**

Bai, aldaketa handia izan zen. Arrasatek 25.000 biztanle ditu, eta Madril hiriburu handia da.



GOIENKARIA

**Fon enpresan lanean**
Fagorreko lana utzi eta Fon enpresan hasi zen lanean del Rey; wifi teknologiarekin aritzen da.

Baina, bestalde, uste baino errazagoa egin zait hirira egokitzea. Segurtasun eza, estresa eta buruan nituen beste hainbat gauza horrenbesterako ez direla konturatu naiz.

Madril hiri modernoa da: irteteko aukera asko ematen du, eta, kultura aldetik, eskaintza zabala dago.

**Madrilera bisitan joaten denari, zer erakusten diozu?**

Madrilera etortzen diren lagun gehienak kontzertuetara etortzen dira, kale giroa ezagutzera. Egia esan, ez gara museoak bisitatzen ibiltzen.

Malasaña auzoan irteten gara; gazte jende asko egoten da, eta, euskal giroaren antz handiena duen auzoa izan arren, lagunek hara joateko gogoa izaten dute.

**Arrasateko zer nabaritzen duzu faltan Madrilen?**

Arrasatek duen lasaitasuna, adibidez. Aurretik esan bezala, Madril ez da oso hiri estresagarria, baina, hala ere, beti dago zarata: kaleko zarata, autoena… Gainera, gu erdialdean bizi gara, eta gehiago nabaritzen ditugu zarata horiek.

Arrasaten ere, Fagorretik ateratzean, auto mordoa izaten da, baina beste gauza bat da.

**Aprobetxatu dituzu udako oporrak etxera etortzeko?**

Bai, hiru opor aste izan ditut; lehenengo bi asteetan, Japonen izan gara. Gero, azkeneko astean, etxera joan gara, familiakoak eta lagunak bisitatzera. Arrasaten egoteaz gain, Zarautzen ere izan gara egun batzutan.

**kale inkesta**

# Udako oporrak bukatu eta gero, lanera bueltatzea gogorra egin zaizu?



**Jose Luis Lazkanoiturburu**
Langilea
Oñati

Ni, oraindik, oporretan nago, irailaren 10era arte, abuztuko lehen bi asteetan lan egin dut-eta. Hala, momentuz, nahiko lasai nago. Baina ziur nago lanerako itzulera oso gogorra egingo zaidala.



**Arantza Ugarte**
Langilea
Oñati

Egia esan, niri oso gogorra egiten zait lanera bueltatzea, bai.

Tira, oporrak bukatu dira. Ni, abuztuan, Oñatin egon naiz, lasai-lasai. Eguraldiak ez digu askorik lagundu, baina ondo pasatu dut.



**Fernando Diaz**
Langilea
Oñati

Nik oporrak uztailean hartu nituen. Hortaz, abuztuan lan egin dut. Edozelan ere, lanera bueltatzea ez zait batere gogorra egiten.

Halaber, abuztuan, normalean, lasaiago egiten dugu lan.



**Quinti Estrella**
Langilea
Oñati

Azkeneko hiru urteotan, abuztuan, lan egin dut. Urtean zehar, hilabete batzuetan, ez dut lanik egiten.

Hortaz, besteak oporretan daudenean, niri lan egitea tokatzen zait; aurten ere bai.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 02

## goienkaria@goiena.com

ANTZUOLA
**> Herriko sarrera, obretan**

Auto gidari batek esan digu Antzuolara sartzeko eskumako aldean dagoen biribil erdian obretan ari direla eta, ondorioz, Bergaratik datozen autoek herrira sartzeko maniobra egiteko zailtasunak dituztela. "Autoa errepidearekiko paralelo geratzen denez, bidetik aurrera jarraitzen duten autoak ia ezin dira ikusi, eta horrek istripuren bat gertatzeko arriskua areagotzen du", esan digu.

OÑATI
**> Kiroldegiko kantxa ezin erabilita**

Oñatiko saskibaloi eta eskubaloi jokalariak kexu dira, Zubikoako kantxan lur berria ipintzen ari direnez, eta aldamenean egiten diharduten kiroldegi berria oraindik inauguratu ez dutenez, ezin dutelako han entrenatu. "Lanok abuztuan egin balituzte, orain jokatzeko moduan egongo ginateke", diote kirolariek.

ARRASATE
**> Turistendako informazioa, euskaraz eta gaztelaniaz**

Arrasatear batek idatzi digu, esanez Gazte Informazio Bulegora jo zuela Arrasateren gaineko informazio bila, eta eskuorriak euskaraz eta gaztelaniaz bakarrik zeudela. "Atzerritik lagun bat etortzekoa zen, eta ez ingelesez ezta frantsesez ere, ez zeukaten Arrasateren gaineko informaziorik. Kontuan hartuta, urtean barrena turistarik etorri ez arren, kooperatibetara kanpotik bisitari asko etortzen dela, ahalegin txiki bat egin beharko lukete".

**usteak uste**

**Mireia Bikuña**

# Zein gogorra den lanera bueltatzea!

Bukatu dira! Oporrak bukatu dira. ASTELEHENEKO GOIENKARIAko lantaldean, bost aste bukaera izan ditugu jai (a ze pagotxa!). Baina dagoeneko lanean hasi gara; esku artean duzun aldizkaria da horren seinale. Eta, lanera itzultzea gogorra bada, askoz gogorragoa da aste bukaeratan lan egitea.

Edozelan ere, jai izango dudan hurrengo aste bukaera iritsi arte, aurretik dugun aldapa gogorrari aurre egiteko, jaiak datoz Oñatira. Oñatiarrondako, iraila hilabete ederra izan da beti. Haurren Eguna, Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa, danborradak, Herri Eguna, Errosarixo Bixamona... Egun asko eta parranda asko. Jaiak irailaren 28an hasiko dira. Zu ere gonbidatuta zaude!

**zorroztailea**



**Elena Laka**

# Eta orain zer?

"Manu Chao *La Radiolina*-rekin itzultzen da (…). Azpitituluaۦ *¿Y ahora que?* da, artistak egiteko "mila gauza" geratzen direla adierazteko (…). Chaok dio mendebaldeko politika eta ekonomiari aurre egiteko modu onena "norbere ortua" edukitzea dela, bere kasuan, bere karrera musikala kontrolatzea."

Gara > 2007-09-01



Iraileko itzulera guztien artean, baita Manu Chaorena ere. Ez da galdera txarra botatzen diguna: *Eta orain zer?* Galdera ona, merchandising usaina ez balu. Ausarti, errezeta ere proposatzen du mendebaldeko politika eta ekonomiari aurre egiteko. Entzun ondo zer proposatzen duen: norberak bere baratzea izan dezala. Ez iraultzarik, ez desobedientziarik, utikan manifestuak, ez bilera-gailurrik, ezta disidenteen batasuna ere. Ahaztu elkartasuna, justizia edo askatasuna moduko kontzeptuak garaile izango diren sistema berri bat. Norbera bere ortuarekin, listo.

Onar dezagun, bada, gauza txikietatik hasi beharra dugula mendebaldeko politika eta ekonomiari aurre egiteko. Asmoa aurre egitea bada behintzat, zeren nabarmena da lagun dezente mendebaldeko politika eta ekonomia sisteman eroso bizi direla, lehentasunen artean ez dutela hari aurre egitea.

Izango da, hala ere, sistemari aurre egin nahi dionik. Erabili orduan errezeta: ortutxoa landatzen hasi. Bi adibide, ordea, proposamen honen zailtasuna erakusteko: ortua etxean egin nahi duenak euriborraren hazkunde itogarriari aurre egin beharko dio. Izan ere, ez dut ezagutzen morroi hipotekadunik, uda bukaera-normaltasunera-itzultze honetan, euriborra entzute hutsarekin azala oilo zaharraren parekoa ipini ez zaionik. Baina, hipoteka bat eskatzea eta euriborraren menpe bizitzea ez da mendebaldeko ekonomiari men egitea?

**"Sistemari aurre egiteko, erabili errezeta: ortutxoa landatzen hasi"**

**"Euriborraren hazkundeari aurre egin beharko dio ortua nahi duenak"**

Bigarren adibidea, ortua norbere sailean eraiki nahi duenak, inongo nagusiren menpekotasunik barik. Ibarretxeri hamaikatxo arazo sortzen zaizkio ortutxoko barazkien nekazari izateko. Badirudi baratza atontzen hasi nahi duela, galdeketa planteatuko duela, behintzat. Ongarri ugari beharko du etorriko zaizkion momorroei aurre egiteko.

Erraza da errezetak ematea. *Eta orain zer?*, ordea, ez da galdera makala euriborraren hazkundeak urteko mila euro baino gehiago lapurtuko dizkion langilearentzako. Ezta herri galdeketa baten erabakia emateko itxaropena duenarentzako. Norberak bere baratzea daukanean askoz errazago baita galdera horri erantzutea.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Edurne Burgaña **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 10 **Bergara** > 11 **Oñati**> 12 **Aretxabaleta** > 13 **Eskoriatza** > 13
**Antzuola** > 14 **Aramaio** > 14 **Elgeta** > 14 **Leintz Gatzaga** > 14



**> BERGARA**
Zapatuan, San Martineko azoka egingo dute, eta danborradako entseguak gaur hasiko dira **> 11**



**> OÑATI**
Hainbat berrikuntza daude aurtengo San Migel eta Errosarixoko jaien egitarauan **> 12**



**> ARETXABALETA**
Ia bukatuta dago herria Arrasaterekin eta Eskoriatzarekin lotzen duen bidegorria **> 13**



**EZOHIKOA** AHTren inguruko ezohiko osoko bilkura egin zuten abuztuaren 27an.

GOIENKARIA

**ARRASATE** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# Udala AHT proiektuko beharrak oztopatzen ahaleginduko da

**ALEGAZIOAK**
Alegazioak aurkezteko epea oporretan zabaldu zuten; abuztuaren 3tik 27ra

**INTERES OROKORRA**
Proiektua interes orokorrekoa da, eta eskumena Espainiako Gobernuak dauka

**EDURNE BURGAÑA** > ARRASATE

Arrasateko Udalak ezohiko osoko bilkura egin zuen abuztuaren 27an, alderdi politikoek Abiadura Handiko Trenaren proiektuarekiko duten jarrera jakiteko. Lurren desjabetzen alegazioak aurkezteko epea amaitzen zen egun horretan, eta Arrasateko Udalak, instituzio bezala, Aramaio-Arrasate eta Arrasate-Elorrio bitarteko zatietan, proiektuarekiko dauzkan desadostasunak jasotzen dituen idatzia aurkezteko bozketa ere egin zuten.

**ARAUAK BETETZEA ESKATU**

AHT proiektuaren aurka agertu ziren Eusko Abertzale Ekintza, Ezker Batua-Zutik eta Aralar. Alderdi Sozialistak eta Eusko Alderdi Jeltzaleak Abiadura Handiko Trenaren aldeko botoa eman zuten, eta Eusko Alkartasuna abstenitu egin zen. Aipatzekoa da Ezker Batua-Zutik proiektuaren aurka agertu dela Udalean, eta alde dagoela Eusko Jaurlaritzan. Guztia kontuan edukita, AHT proiektuaren lanak oztopatzeko ahaleginak egiteko erabakia hartu zuen Arrasateko Udalak.

Abuztuaren 27ko hitzordua ez da udan egindako bakarra izan. Horren aurretik, hilaren 3an, prentsaurrekoa egin zuten Arrasaten. Bertan bildu ziren Atxondo, Gatzaga, Izurtza, Urretxu, Angiozar, Aramaio, Eskoriatza, Elorrio, Antzuola eta Arrasateko alkateak. AHTri alegazioak aurkezteko epea abuztuan zabaltzea salatu zuten EAEko hamar alkateek. "Maltzurkeriaz jokatzea" salatu zuten, eta baita epea luzatzeko eskatu ere. Sustapen Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak "proiektuaren gaineko eztabaida serio eta sakona" egin nahi ez izatea eta "kaltetuei informazioa galarazi eta alegazioak egiteko traba" jartzen dituztela salatu zuten.

Herri bat baino gehiago AHT proiektuaren kontra agertu dela ikusita, Espainiako Gobernuko ordezkari Paulino Luesmak adierazi du ez duela onartuko AHT proiektuari "trabak jartzea". Horren aurrean, AHT Gelditu! Elkarlaneko kide Mila Elortzak argi dauka egin beharrekoa: "Proiektua aurrera egiteko bidea dute, baina guk ikusten duguna da, udalek gelditzeko ahalmena eduki ez arren, traba eta oztopoak ipintzeko aukera dutela. Horrelako proiektuak aurrera eramateko behar diren arauak oso zehatzak dira, eta orain arte ez dute ezer bete. Legearen arabera lan egiteko eskatzea da geratzen zaiguna, eta horrela, denbora lortu".

ESALDIAK

**"AHT proiektua egitean, legearen arabera lan egiteko eskatzea da geratzen zaiguna, eta horrela, denbora lortu"**

**Mila Elortza** > AHT Gelditu! Elkarlana

**"Ez dute proiektuaren gaineko eztabaida sakonik egin nahi; informazioa galarazi eta alegazioak egiteko trabak jartzen dituzte"**

**Eusko Abertzale Ekintza**

**OBRAK** > AZPIEGITURAK

# Maala kalean bi noranzko dituen errepidea egingo dute

Udalak lortu gura duena da Maalako biribilgunea eta 'Mataderoko' biribilgunea lotzea, eta halaber, erdiguneko zirkulazioa arintzea



**BEHETIK GORA** Gaur egun, Maala kaleak noranzko bakarra dauka: Nafarroa etorbidetik Gipuzkoa etorbidera . U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Maala kalean eta Villa Amparoren (Mapfre Etxea) atzeko aldean obrak hastear daude. Izan ere, bi noranzko dituen errepidea egin gura du Udalak inguru hartan.

Azpiegitura horrekin, Maalako biribilgunea eta *Mataderoko* biribilgunea lotzea da asmoa. Modu horretan, gainera, Arrasate erdiguneko zirkulazioa arindu egingo dute, eta tranbia datorrenerako gertu izango dute guztia: "Tranbia datorrenean Gipuzkoa etorbidea zirkulaziora itxi egin beharko balitz, horrela posible izango litzateke", adierazi du Hirigintza Saileko teknikari buru Juan Antonio Urdangarinek.

**MAALAKO ESPALOIA ZABALDU**

Hark gaineratutakoaren arabera, Maala kalean bi noranzkoak egiteaz gainera, kale horretan dagoen espaloia zabaldu egin gura du Udalak, gaur egungoa estu samarra da-eta; "egokitu egingo dugu", dio teknikariak.

Halaber, kale horretako lanak egin ahal izateko, Ertzaintzak duen aparkalekuari zati bat kendu egin beharko diotela ere jakinarazi du, beste zatitxo bat kenduko diotela Etxe Txikietako bati eta *Mataderoko* zubia handitu egin beharko dutela ere bai.

**ERTZAINTZAREN APARKALEKUA**

Hirigintzako teknikari arduradunak zehaztutakoaren arabera, Villa Amparo (Mapfre Etxea) eta Aramaio errekaren arteko errepide zatian bi noranzko egin ahal izateko, berriz, espaloiari zati bat kendu egingo diote. Horrekin batera, han dauden hainbat zuhaitz (platanondoak) bota egin beharko dituzte.

Edozelan ere, han dagoen parkeak ez duela bestelako aldaketarik izango gaineratu dute.

**SEMAFOROA KENDU**

Bestalde, Maalako lan horiek beste ondorio bat ere ekarriko dute: Gipuzkoa etorbidean behinbehinerako ipinita dagoen semaforoa kendu egingo dute Maala kaleak bi noranzko dituenean; eta horrek ere arindu egingo du dezente Gipuzkoa etorbideko zirkulazioa.

**BOST HILABETEKO EPEA**

Obenerreka enpresak egingo ditu obrak, Gelmako etxeen Zabaletako enpresa eraikitzailea. Bost hilabeteko epea dute lan guztiak bukatzeko.

Udalaren eta enpresaren asmoa da lanak egitea autoen joan-etorria ahalik eta gutxien oztopatuta. Horretarako, zatika egingo dituzte obrak.



ANDONI ALTZELAI

## Arrasateko 15 bikote Indian eta Nepalen izan dira

Taj Mahal eraikin ezagun eta ikusgarriaren aurrean ipini eta oroitzapenerako horrako argazki polit hori atera zuen argazkian dagoen arrasatear talde horrek. Hain zuzen ere, Sola izena dauka koadrila horrek. "Hiru urtetik behin, Arrasateko 15 bikote elkartu eta bidaia potolo bat egiten dugu. Aurten, India eta Nepal bisitatzen izan gara", kontatu du Andoni Altzelaik, bidaiako parte-hartzaileetako batek. Guztia ondo atera zitzaiela eta primeran ibili direla kontatu du hark.

**ERRETIRATUAK** > ABAROA EGOITZA

## Hainbat ekitaldi antolatu ditu Abaroa egoitzak

Bestelakoen artean, bi irteera egingo dituzte: Aiara ibarrera (Araba) eta Calpera (Alacant)

**U.M.** > ARRASATE

Abaroa Erretiratuen Egoitzan buru-belarri dabiltza ikasturte berrirako ekitaldiak antolatzen.

Bestelakoen artean, iragarri dute gaur, astelehena, hasi direla gimnasia eskolak egiten, Saioa gimnasioan. Hori horrela, jakinarazi dute eskola horietan parte hartu gura duten bazkide guztiek Saioa gimnasioan azaldu beharko dutela edo Abaroara joan.

**ARABARA ETA ALACANT-ERA**

Irailean egingo duten irteera baten berri ere eman dute: Aiarara joango dira, irailaren 19an. Besteak beste, Amurrioko txakolinaren museoa eta Bilbo bisitatuko dituzte. Izena eman behar da hilaren 13an, 10:30ean. Prezioa da 22 euro. Eta jakinarazi dute, baita ere, urriaren 20tik azaroaren 3ra Calpera egingo duten irteerarako oraindik izena emateko aukera badela.

**GIZARTEA** > EMAKUMEA

## Hondarribiko Alarderako autobusa antolatu dute

23 lagunek eman du izena, baina oraindik bada lekua; Biona tabernan eman behar da izena

**U.M.** > ARRASATE

Arrasatetik autobusa izango da Hondarribiko Alardera joateko, irailaren 8an, zapatua. Herritar talde batek antolatu du. Helburua da Jaizkibel konpainiari babesa adieraztea eta, "jakina, emakumeen eskubideak defendatzea", diote antolatzaileek.

Autobusa aterako da Arrasatetik 06:15ean, Alardea goizean goiz hasiko da-eta. Helburua da "Alardean parte hartu, kanpotik edo barrutik"; hala, konpainia mistokoekin batera igoko dira Guadalupeko santutegiraino, eta han, hamarretakoa egingo dute. Gero, "hangoek prestatutako bazkaria jan, txikiteoa egin eta berriro ere Alardean parte hartuko dugu arratsaldean".

Jaizkibel konpainia Arrasaten izan zen 2000n, Maritxu Kajoik gonbidatuta. Handik sortutako harremanetik dator oraingo ekimen hau.



**AZOKA** San Martin jaietako feriak jende ugari batu izan du azken urteotan. Ekitaldi berria izango da zapatuan. GOIENKARIA

**JAIAK** > SAN MARTINAK

# San Martinetako azoka ospatuko da zapatuan

Gazta-dastatze ikastaroa izango da eguenean, Bittor Rodriguez bergarararraren eskutik

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
San Martin jaiak hasteko, fruitu, barazki eta gazta lehiaketa izango da zapatuan, irailaren 8an. Oraingoz, 11 baserritar izango dira lehian barazki lehiaketan; sei, fruta lehiaketan, eta 46 ekoizle, gazta lehiaketan. Horrez gain, 50 postu inguru jarriko dituzte Seminarioko patioan.

**GAZTA-DASTATZEA, EGUENEAN**
Bestalde, azken urteotako ohiturari eutsiz, gazta-dastatze ikastaroa egingo dute San Martin jaien bezperatan. Idiazabalgo Jatorrizko Izenduraren Elkarteko kide den Bittor Rodriguez bergararrak emango du ikastaroa eguenean, irailaren 6an, 19:00etan, kultura etxean (943 77 91 59). Ikastaroa doanekoa da, eta interesatuek gaur arte eman dezakete izena. Debagoiendar guztiek parte hartu dezaketen arren, bergararrek lehentasuna daukate, parte hartzea mugatua baita (25 lagun).

**DANBORRADAKO ENTSEGUAK**
Gaur, astelehena, hasi eta aste osoan, danborradako entseguak izango dira Seminarioko patioan. 19:00etan, haurrak elkartuko dira, eta 20:00etan, helduen txanda izango da.

**LANAK** > MARTINEZ DE IRALAKO URBANIZAZIOA

# Irala kaleko lanei urrian ekingo diete berriro

Lanak eten egin ziren neguan, eta, urriaren 8tik aurrera, beste enpresa batek jarraituko du lanekin

**E.M.** > BERGARA
Urriaren 8an ekingo diete berriz ere Domingo Irala kalea urbanizatzeko lanei. Lasarteko Ozio enpresak hasi zituen aipatutako lanak aurreko neguan; hala ere, lanak eten egin zituzten handik gutxira, Ozio enpresak uko agiria aurkeztu ondoren. Gauzak horrela, ordura arte egindako lanak tapatzea erabaki zuen Udalak apirilean, berriro lanekin hasi bitartean, dendariengan eta herritarrengan sortutako kalteak konpondu nahian, nolabait. Izan ere, euren haserrea azaldu zuten hainbat dendarik, eragozpenak zirela eta.

**KILOMETROEN ONDOREN**
Aretxabaletako Construcciones Amaral de Sousa enpresari adjudikatu dizkiote aipatutako lanak, 1.379.220 eurotan, hain zuzen ere. Aranzadi Ikastolaren aldeko Kilometroak jaia urriaren 7an ospatuko denez, lanekin hurrengo egunean hastea egokiena dela erabaki dute Udaleko ordezkariek.

Bestalde, Martinez de Irala kaleko bizilagunengan eta dendariengan orain arte sortutako kalteak direla eta, berriro lanekin hasi baino lehen, beraiekin bilera bat egiteko asmoa azaldu dute Udaleko arduradunek, lanen nondik norakoak ondo zehazteko. Beraz, datozen asteotan bilera batera deituko dituzte.



**IRALA** Neguan hasitako lanak urrian jarraituko dituzte. GOIENKARIA



JOSETXO ARANTZABAL

# Despedida jaia Bergara inguruko sahararrei

Laster joango dira etxera Debagoienean uda pasatzen egon diren ume sahararrak, eta atzo, domeka, despedida jaialdia egin zieten Bubisher elkarteko kideek Bergaran, Antzuolan eta Elgetan egon diren bederatzi umeei.

San Martzialen batu ziren umeak, familiak eta lagun batzuk, eta, umore onean, arratsalde pasa polita egin zuten 40 bat lagunek. Askaria, kukainak, tirolina... izan zituzten, eta pozik ibili ziren guztiak.

Zortzi eta hamaika urte bitarteko bederatzi ume ekarri ditu aurten Bubisher elkarteak, horietatik bost, lehendik egondakoak. Domekan, zazpi bueltatuko dira, eta hilaren 10ean, beste biak. Primeran ibili diren arren, herri-mina ere badutela esan digute.

> HEZKUNTZA

## Matrikula epea zabalik Helduen Eskolan

Helduen Eskolan matrikula epea zabalik izango da irailaren 4tik 13ra. Besteak beste, Bigarren Hezkuntza Graduatua eskuratzeko eskolak eta unibertsitaterako sarrerakoak doan hartzeko aukera dago. Euskara, ingelesa, frantsesa edo informatika eskolak ere eskaintzen ditu. Argibideak: 943 76 44 52.

> ARGAZKILARITZA

## Kirol argazkiak: lanak jasotzeko azken egunak

Kirol Argazkien Lehiaketako lanak jasotzeko epea irailaren 12ra arte izango da zabalik. Euskal Herriko edozein argazkizalek har dezake parte lehiaketan, eta zuri-beltzeko zein koloreko lanak aurkez daitezke. Argibidetarako, 943 77 30 90 telefonora dei dezakezue.

**JAIAK** > EGITARAUA

# Berrikuntzak daude San Migel eta Errosarixo jaietako egitarauan

## Auto klasikoen erakusketa eta zaldi hezitzaileen erakustaldia dira berrikuntzetako batzuk

## Kultur Batzordeak osatu duen egitarauan, kirol eta kultur hitzorduak ere jaso dira

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Abuztua bukatu orduko, gertu du Kultura Sailak San Migeletako jai egitaraua. Danborradak, txantxikuaren jaitsiera, Herri Eguna eta Errosarixo Bixamonaz gain, oraingo jaietan, ekitaldi berriak egongo dira.

San Migelak irailaren 28an, 29an eta 30ean ospatzen dira, eta Errosarixo jaiak, urriaren 6an, 7an eta 8an. Bada, Oñatiko jaietako egitarauan, iraileko aste bukaera guztietan dago zer ikusi eta zertaz gozatu. Halaber, musika, kirola eta kultura dira oinarri nagusiak.

**BERRIKUNTZAK**
Txokolatea izango da jaietako lehen protagonista. Irailaren 14an, Anton Azpiazuk *La amargura del cacao y la magia del chocolate* izeneko liburua aurkeztuko du. Halaber, irailaren 15ean, II. Txokolatearen Artisau Azoka egingo da plazan.

Irailaren 29an, bestalde, zirkoa, umorea eta akrobaziak uztartzen dituen Niño Costriniren ikuskizuna iragartzen da Foruen plazan.

Beste berrikuntza batzuk dira irailaren 30eko auto klasikoen erakustaldia, eta Igor Etxaniz zaldi-hezitzailearen erakustaldia. Errosarixo domekarako, aldiz, Scura Splats delako Valentziako taldearen ikuskizuna iragartzen da.

Korpus jaietan egindako modura, Udal Prebentzio sailaren eskutik, borondatezko alkoholemia kontrolak egingo dira Unibertsitate Etorbidean, irailaren 28an.

**URTEROKOAK**
Somakuturrak; danborradak, umeena, irailaren 22an, eta helduena, irailaren 28an; Herri Eguna eta Errosarixo Bixamona dira urteroko hitzorduak. Hala, egun horiek girotzeko, musika izango da protagonista plazan eta txosnagunean.

Kirol txapelketei dagokienez, eskubaloia, areto-futbola, pilota, golfa, plater tiroketa eta bola joko txapelketak jokatuko dira. Kirol berrikuntza bakarra mendiko bizikleta irteera izango da. Trabesia irailaren 16an irtengo da kiroldegitik.



**NIÑO COSTRINI** Zirkoa, umorea eta akrobaziak uztartzen dituen ikuskizuna, irailaren 29an. GOIENKARIA

## Edurne Otxoa-Aizpuruaren lana, egitarauaren azalean

Eskumako irudia izango da oñatiarrok etxean jasoko dugun egitarauaren azala osatuko duena. Udal Kultura Sailak lehiaketara aurkeztutako zortzi lanen artean, Edurne Otxoa-Aizpuru oñatiarrak egindakoa aukeratu du. Baldintzetan zehazten zen modura, *Oñatiko jaixak 2007* testua agertzen da. Kartelaren irudian jaietako zapi bat jantzita duen txantxiku bat agertzen da lehenengo planoan, atzealdean Oñatiko udaletxea duela.

Azalerako aukeratua izateagatik, 250 euroko saria jaso zuen egileak. Bigarren saria, 125 eurokoa, Xabier Elortza oñatiarrak eskuratu zuen.




Aurtengo irudia. GOIENKARIA

# Kiroldegiko kantxa zaharreko zorua aldatu egin dute

Atzerapen apur batekin, baina Sima enpresa badabil Zubikoa kiroldegiko kantxa zaharreko zorua aldatzen. Lanok abuztuko bigarren eta hirugarren asteetan egin behar ziren.

Kantxako zoruak bost geruza ditu. Hortaz, orain arte egon dena baino bigunagoa izango da. Azken geruza ipini ondoren, margotu egingo dute. Luzeran, areto-futboleko, eskubaloiko eta saskibaloiko neurriak ditu; eta, zabaleran, eskubaloikoak eta saskibaloikoak.



MIREIA BIKUÑA

> ZERBITZUAK

## Gaurtik aurrera, neguko ordutegia izango dute kiroldegian

Abuztua bukatzearekin batera, Zubikoa kiroldegian neguko ordutegia indarrean dago berriro.

Neguko ordutegiaren aldaketarik nabarmenena zapatu, domeka eta jai egunetako ordutegian dago. Hala, zapatuan, eguerdian, kiroldegia itxi egingo da, ordubietatik hiruretara; eta domeka eta jai egunetan, arratsaldez, itxita egongo da.

Abuztuan, astelehenetan, kiroldegia itxita egon da. Gaurtik aurrera, astelehenetik egubakoitzera zabalduko da, goizeko zazpiak eta erdietatik gaueko bederatzietara. Astegunetan, etengabeko ordutegia egongo da.

ESKORIATZA

**Sonia Ignacio** > Lehiaketa zalea

# "'Gran Hermano'-n ez nuke inoiz esku hartuko, baina kultura orokorreko lehiaketetan, bai"




Sonia Ignacio *Pasapalabra* lehiaketan izan da abuztuan. IKER BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

**Sonia Ignacio telebistako lehiaketazalea da. Abuztu erdian *Pasapalabra*-n esku hartu zuen, eta orain beste lehiaketa batzuen zain dago.**

**Zer-nolako esperientzia izan da *Pasapalabra*-n esku hartzea?**

Oso ona. Oso ondo hartu gintuzten Tele5n hango langileak, eta giroa oso ona izan zen. Nik taldean *Aida* telesaileko Luismarekin eta *La que se avecina* telesaileko Eva Ysantarekin esku hartu nuen, eta oso jatorrak iruditu zitzaizkidan. Bestalde, *Pasapalabra*-ko aurkezle Christian Galvez ere oso atsegina izan zen.

**Eta irabazi zenuten zerbait?**

Ez, ez genuen ezer irabazi. Beste talde bat nagusitu zen, eta programa baten esku hartu ostean, kalera bota gintuzten. Bueno, hala ere, Madrilgo egonaldiko hotela, bazkaria, hegazkina... horiek guztiak ordaindu zizkidaten, jakina. Ez naiz damutzen.

**Denbora luzea pasa da izena eman zenuenetik esku hartu duzun arte, ezta?**

Bai. Hiru urte pasa dira. Castingak oso gogorrak izaten dira: lehenengo, telefonoz, kultura orokorreko galderak erantzun behar izan nituen; horren ostean, Bilboko hotel baten, kamera aurrean beste galdera sorta bat erantzun behar izan nuen; et,a horiek gaindituta, oso epe laburrean, hitzordua egin zidaten berehala Madrilera joateko.

**"'Pasapalabra'-n ez genuen ezer irabazi, baina oso ondo pasa genuen"**

**"Orain arte esku hartu dudan telebista saioetan oso-oso lasai egon naiz, azterketetan ez bezala"**

***Date el bote*-n ere izan zinen aspaldi, ezta?**

Bai, ETB2n izan nintzen, Carlos Soberarekin, orain dela seizazpi urte. Han ere ondo pasa nuen, eta nire taldeak irabazi zuenez, dirua banatu eta euro eraman nituen etxera. Gogoan daukat Soberak harrikada itzela daukala. Xelebrekeria galantak egin zituen ni han izan nintzenean.

**Telebista asko ikusten duzu?**

Bai, gehiegi. Halako lehiaketak ikustea dut gustuko, eta ni etxetik galderak erantzuten saiatzen naiz.

**Beste lehiaketa batzuetan esku hartzeko asmoa daukazu?**

Asmoa bai. *La ruleta de la suerte* eta *El negociador* lehiaketetako lehenengo castingak gainditu ditut, baina orain zain nago hurrengo probak noiz egin. Bestalde, *Gran hermano*-eta halakoetara ez nintzateke joango.

**ARETXABALETA** > HIRIGINTZA

# Arrasate eta Eskoriatza arteko bidegorria ia bukatuta dago

Aretxabaleta Arrasaterekin eta Eskoriatzarekin lotzen dituen bi tramu konpondu dituzte

Bidegorri tramu horiek erabilgarri dauden arren, gauza txiki batzuk falta dira lanak bukatzeko

**I.B.** > ARETXABALETA

Arrasatear, eskoriatzar eta, batez ere, aretxabaletar askok erabiltzen duten bidegorriaren lanak oraindik bukatzear daude, baina horrek ez du esan gura bidegorria erabil ezin daitekeenik.

Aldundiak finantzatu ditu lanok, eta Aretxabaletako Udalak idatzi ditu proiektuak: bata, Arrasate eta Aretxabaleta bitarteko tramu bati dagokio; eta bestea, Eskoriatzara artekoa.

**ASPALDI EGIN BEHARREKO LANA**

Aretxabaletako Udaleko Ingurumen zinegotzi Joxe Angel Antxiak jakinarazi digu Aldundiak aspaldi agindu ziela bidegorria egiten lagunduko ziela: "Aretxabaletako saihesbidea egiteko trenbide zaharraren zati bat hartu zutenez, hori konpentsatuko zutela azaldu ziguten. Azkenean, proiektua guk idaztea erabaki genuen; eta Aldundia horren kargu egin da".

**KALE-ARGIAK ETA BESTE**

Tramu horiek bukatzeko lan txiki batzuk egitea falta da bakarrik: kale-argiak eta seinale batzuk jartzea, eta tramu bat gorriz margotzea, besteak beste.

**SAIHESBIDETIK, HARRIAK**

Bestalde, herritar batzuek salatu dute, autobideko lanen eraginez, harri asko jausi direla saihesbidera. Hala, auto eta kamioiek, batzuetan, harri horiek bidegorrira jaurtitzen dituzte, oharkabean. Arrisku horren gainean ohartarazi dute herritar horiek.



**UDAN** Herritarrak, bidegorrian paseatzen. JOSETXO ARANTZABAL

**ARETXABALETA**

# Arantzazura erromes joango dira gaur

Udalbatza eta udaleko hainbat arduradun joango dira, urtero moduan

**I.B.** > ARETXABALETA

Aspaldiko ohitura da iraileko lehenengo astelehenean hainbat aretxabaletar Arantzazura erromes joatea; eta aurten ere, hala egingo dute.

Bi talde nagusi izango dira: batetik, udalbatzako kideak, idazkaria, udaltzain burua eta batzorde buruak joango dira, batzuk oinez eta beste batzuk autoan. Meza entzun eta elkarrekin bazkalduko dute.

**AUTOBUS BAT BETETA**

Bestalde, Basotxo erretiratuen elkartean ere izena emateko aukera izan da aurreko astean, eta autobus bat bete dutela jakinarazi digute antolatzaileek. Meza entzun ostean, bazkaria ere izango dute herritar horiek.

**ARAMAIO** > PLATER-TIROKETA

# Bost aramaioar lehenengo 15en artean geratu ziren plater-tiroketan

Hirurogeita zazpi tiratzailek parte hartu zuten Kurtzeta-Gain txapelketan, zapatuan

Lehenengo aramaioarra Angel M. Ullibarriarana izan zen, bigarren postuan



**LEHIA** Zapatuko txapelketako parte-hartzaile batzuk. JOSETXO ARANZABAL

**LEIRE KORTABARRIA** > ARAMAIO
Marka polita egin zuten herritarrek zapatuan jokatutako V. Kurtzeta-Gain Plater Tiroketa txapelketan: izan ere, bost aramaioar egon ziren saridunen artean. Guztira, 67 lagunek parte hartu zuten, eta lehenengo hamabostendako egon zen sari bana.

Sari nagusiak honela banatu ziren: txapelduna Jose Ramon Arginzoniz elorriarra izan zen, eta 50 euro eta urdaiazpikoa jaso zituen; txapeldunordea Angel Mari Ullibarriarana aramaioarra izan zen, eta 40 euro eta urdaiazpikoa izan ziren beretako; hirugarren, Alfonso Corbeiro, eta laugarren, Gonzalo Olea. Lehenengo hamabostek urdaiazpiko bana jaso zuten. Txapelketa robot makina bitartez egin zuten, hamabost platereetara.

**HERRIKO ASKO**
Oso txapelketa borrokatua izan zen, bukaerara arte; izan ere, lauk 15 platerak jo zituzten, eta berdinketa apurtzeko lehia ere oso bizia izan zen.

Iñaki Ullibarriarana Kurtzeta-Gain elkarteko antolatzaileak dioskunez, "helburuak bete" egin dira, parte-hartze kopuru polita egon delako eta "Aramaioko uste baino partaide gehiago" egon direlako, hamabost, hain zuzen; gainerakoak Euskal Herriko toki askotatik etorritakoak izan ziren.

Aramaion, plater-tiroketa txapelketa dezente egiten dituzte urtean barrena, eta Ullibarriaranak baieztatzen digu "afizio handia" dagoela herrian. Aurten, txapelketako lehenengo urteetan baino partaide gutxiago egon arren, kopurua ontzat jotzen dute antolatzaileek.

**ELGETA** > JAIA

# Sagardo Eguna da irailaren 15ean

Patata tortilla lehiaketan parte hartu nahi duten guztiek hilaren 13a baino lehen eman beharko dute izena; bi lekutan egin daiteke

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA
Gazte Batzarrak antolatuta, azken urteetako ohiturari jarraituz, Sagardo Eguna izango da irailaren 15ean.

Patata tortilla lehiaketarekin hasiko dute elgetarrek jaia. Parte hartu nahi duten taldeek zein norbanakoek irailaren 13a baino lehen eman beharko dute izena Haizea tabernan edo liburutegian.

Tortillarik onena zein den aukeratzeko, dastatzea egingo dute epaimahaikoek 19:00etan eta, itxurari ere garrantzia emango diotenez, aurkezpen txukuna egin beharko da. Tortillak probatu ostean, sari banaketa egingo dute plazan bertan.

**AURTEN, AFARIRIK EZ**
Azken urteetan sagardotegiko menuarekin afaria egin badute ere, aurten, Gazte Batzarrekoek pentsatu dute tripa betetzeko txitxiburduntzia egitea. Jatekoa eskuratu nahi duenarendako, plazan bertan ipiniko dituzte txartelak salgai.

Edateko, berriz, nahi adina sagardo egongo da, plazan, gaztetxean eta herriko hainbat tabernaren kanpoko aldean ipinitako kupeletan.

Jaia borobiltzeko, kontzertua izango da gaztetxean. Bergarako Emon taldeak dantzarako doinuak eskainiko ditu 23:00etan, eta zehaztu gabeko beste talde bat izango du lagun.

**MENDIZALETASUNA** > KANPALDIA

# Asteburuan egingo dute kanpaldia

Nafarroako Lerate herrian egingo dute kanpaldia Arrolakoek, irailaren 8tik 9ra. Atzo, domeka, Finalista Eguna ospatu zuten

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA
Irailean urtero egiten duen moduan, kanpaldia antolatu du Arrolak. Datorren asteburuan izango da, irailaren 8tik 9ra, hain zuzen ere. Lerateko (Nafarroa) Aritzaleku kanpinera joango dira aurten. Bihar, martitzena, duzue irteera horretarako izena emateko aukera, Arrolaren egoitzan (Kalebarrenen), 19:00etatik 20:00etara. 11 urtera arteko neska-mutikoek 28 euro ordaindu beharko dute; gainerakoek, 35 euro.

Irailaren 8an, 09:00etan irtengo dira Sagastitik. Egun horretan, Urederrara ibilaldia egingo dute; bazkalostean, kanpineko igerilekura joango dira. Domeka goizean ere, mendi ibilaldia egingo dute Lerate inguruan; arratsaldean, igerilekuan ibiliko dira, eta iluntzerako itzuliko dira Antzuolara.

**FINALISTA EGUNA**
Aipatzekoa da, bestalde, atzo, domeka, Finalista Eguna ospatu zutela Arrolakoek. Urtero ospatzen dute egun hori iraileko lehenengo domekan. Goizeko bederatzietan abiatu ziren Herriko Plazatik herriko mendizaleak, eta Uzarragatik, Arrasate baserritik eta Kostarratzutik pasatu eta gero, Trekutzera iritsi ziren. Hantxe, salda eta ogitartekoak banatu zituzten Arrolakoek mendizaleen artean.

**LEINTZ GATZAGA**

# Herritik Dorletara arteko bidea asfaltatuta

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Gatzaga eta Dorletako santutegira artean dagoen errepidea asfaltatzen ibili dira egunotan. Foru Aldundiaren ardurapean dago aipatutako errepidea, eta bera ibili da lanok egiten. Asfaltozko geruza bat orain dela aste batzuk bota zioten, eta eguazten eta eguenean, bigarren geruza botatzen ibili ziren langileak.

Errepidea ez zegoen egoera txarrean, baina halako lanik egin barik zegoen aspaldian, eta herritarrek eskertuko dute. Gainera, aste bukaeran, Andramaixak ospatuko dituzte Gatzagan, eta jende asko hurreratuko da Dorletara, meza entzutera.

Eskoriatzako Bolibar eta Mendiola auzoetan, antzeko lanak egiten dabil Aldundia.

# Kirola



**> FUTBOLA**
Arrasate Hiria Txapelketan Mondra nagusitu da **> 17**



**> SASKIBALOIA**
Bruesak eta Melillak Eskoriatzan jokatu dute **> 18**



**> ESKALADA**
Harkaitz handietako ikastaroa Arabako Eginon **> 20**



**> ZIKLISMOA**
Velasco eta Irizar Espainiako Itzulia jokatu gabe geratu dira **> 21**




**PENALTIA** Jon Urtzelai oñatiarra, epaileak penaltia adierazi ostean.

JOSETXO ARANTZABAL

**FUTBOLA** > EIBAR-REAL

# Penalti bidez bada ere, Realak garaipena lortu zuen Ipuruan

**HISTORIKOA**

Eibar eta Realak ligan jokatzen duten lehenengo partiduan Urtzelaik jokatu zuen

**IBARREKO ZALEAK**

Realak hain gertu jokatzen zuenez, ibarreko zale asko joan zen Ipuruara

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Ez zen ibarreko ordezkaririk falta izan zapatuan Ipuruan jokatu zen derbi historikoan. Ligan Realak eta Eibarrek elkarren aurka jokatzen duten lehenengo aldia izan zen zapatukoa, eta Realak 0-1 irabazi zuen.

**URTZELAI, HAMAIKAKOAN**

Berdegunera salto egin zuten 22 jokalarien artean zegoen Jon Urtzelai oñatiarra; gainera, bera izan zen Realaren aldeko penaltian parte hartu zuen jokalaria.

Penalti harekin, Realak garaipenaren gola lortu zuen. Eibarreko jokalariak, baina, ez ziren pozik geratu emaitzarekin: "Gehiago merezi genuen; gutxienez ,berdinketa", esan zuen Mikel Etxabe Eibarko jokalari aretxabaletarrak. "Reala baino hobeto aritu gara", gaineratu zuen. Etxabe min hartuta dago, eta ez zuen zapatuko partidua jokatzerik izan.

Realean, berriz, pozik zeuden garaipenarekin: "Garrantzitsua irabaztea da, eta hiru puntuak lortzea; hortaz, pozik gaude. Aukera aldetik, nahiko berdina izan da partidua", esan zuen Mikel Gonzalez arrasatearrak. "Joko gutxi ikusi da eta, alde horretatik, ez da partidu ona izan. Aukera garbienak estrategia jokaldietan egon dira; eta gola ere, penalti bidez lortu dugu", azpimarratu zuen.

Etxaberentzat, berriz, epailearen lana erabakigarria izan zen azken emaitzan: "Epailearen lanarekin ez dugu zorterik izan".

**IPURUA EZ ZEN BETE**

Partidu historikoa izan arren, zapatuan ez zen Ipurua futbol zelaia bete. Sarrerak oso garesti jarri zituzten. Hala ere, zelaira joan ziren zaleek etengabe animatu zituzten bi taldeak. "Pena izan da jende gehiago ez joan izana; izan ere, giroa oso jatorra izan da. Baina, sarreren prezioa ikusita, normala iruditzen zait zelaia ez betetzea", adierazi zuen Gonzalezek.

Arrasatearrak ez zuen talde txuri-urdinarekin derbia jokatzerik izan: "Beste edozein partidutan bezala, pena da ez jokatu izana; baina gogor entrenatuko dut postua irabazteko".

Ligako bigarren jardunaldian lortutako garaipenarekin, Realak itxaropentsu hasten du astea. Gaur Las Palmasera bidaiatuko dute txuri-urdinek, Kopako kanporaketa jokatzeko.

**JOKO ERABAKIGARRIA**

Lehenengo jardunalditik bigarrenera, aldatu egin da Realaren jokoa: "Guk lehenengo egunetik onartu genuen bigarren mailan jokatu behar genuela. Hala ere, Anoetan irudi txarra eman genuen. Eibarren aurka, berriz, jokoa aldatu egin dugu", esan zuen Gonzalezek. "Bigarren mailan, joko polita baino gehiago, joko erabakiorra egin behar da", gaineratu du Etxabe aretxabaletarrak.

Gipuzkoarren arteko hurrengo derbia 23. jardunaldian izango da, otsailaren 2an, hain zuzen. Ea orduan denek jokatzerik duten.

**DERBIA** > EIBAR-REAL

# Realak hiru puntu baliotsu lortu ditu, baina Eibarrek irudi hobea eman du

Ipurua futbol zelaian kazetari lanetan dabil Anartz Agirre bergararra

Rafa Mungia arrasatearrak orain arte Realaren partiduak jarraitu ditu




**AGIRRE** Kazetari bergararra Ipurua futbol zelaian ETBrentzat lanean. JOSETXO ARANZABAL

**A.E.** > BERGARA

Futbol zelaian ez ezik, zelaitik kanpo ere izan ziren debagoiendarrak Ipuruan: esaterako, Anartz Agirre kazetari bergararra. Agirrek Eibar taldearen jarraipena egiten du ETBrentzat, eta, zapatuko partidu historikoan, han izan zen, zelaian gertatzen zenaren berri emateko.

**LANERAKO JARRERA**

Bestalde, Arrasateko Rafa Mungia kazetariak Realaren jarraipena egin du azken urteetan. Orain, baina, Reala utzi eta Alavesen partiduak jarraitzen hasi da kazetari hori.

Hala ere, Mungiak hartu zuen tartetxoa zapatuko partidua ikusteko: "Eibarren eta Realaren arteko partidua ez zen ona izan, baina Realak lehenengo jardunaldian Castellonen aurka egin zuen partiduarekin alderatuz, hobekuntza nabarmena izan du. Bigarren mailako mailan jokatu du Ipuruan; gainera, lanerako jarrera ona erakutsi dute txuri-urdinek", adierazi zuen Mungiak. "Eibarrek betiko jokoa egin du, baina, azkenean, ezin izan du punturik lortu. Azkenean, epailearen lanak erabaki du emaitza", gaineratu du kazetariak.

**MAILAZ IGOTZEA, ZAILA**

Rafa Mungiak zail ikusten du aurten Realak lehenengo mailarako txartela lortzea: "Azkar egokitzen badira, lan txukuna egin dezakete, baina nik oso gaizki ikusten dut igoera". Mungiaren ustetan, Realak ez dauka goiko postuetan egoteko taldea. "Batzuek uste ez arren, bigarren mailan jokatu egiten da; hortaz, Realari kosta egingo zaio partiduak irabaztea. Gainera, helburua hiru edo lau urte barru igotzea izan beharko litzateke, ez aurten", gaineratu du Mungiak.

ESANAK



Anartz Agirre. JOSETXO ARANZABAL

**"Realak lehen jardunaldian baino maila hobea izan zuen, baina hori ez zen zaila: aurrekoan, negargarri ibili zen"**

**Anartz Agirre** > Kazetaria



Rafa Mungia. GOIENKARIA

**"Realaren helburua hiru edo lau urte barru lehenengo mailara igotzea izan beharko litzateke, eta ez aurten"**

**Rafa Mungia** > Kazetaria

IBARREKO ZALEEN IRITZIAK

**1.** Justua iruditu zaizu derbiko emaitza?

**2.** Gustuko duzu Realak bigarren mailari begira egin duen taldea?



**Santi Bernal**

OÑATI

**1.** Nik uste dut emaitza ez dela justua; Eibarren aldekoa izan beharko litzateke. Epaileak Eibarren aldeko penaltia ez du adierazi. Bestalde, jokoari dagokionez, Eibar hobeto ibili da, eta partidua irabazteko aukerak izan ditu. Etxeko taldeak egin duen jokoa gustatu zait, baina ez Realak egin duena.

**2.** Gaurko emaitza positiboa izan da Realarentzat baina, joko aldetik, asko hobetu behar du Realak lehenengo mailara igotzea gura baldin badu.



**Alaitz Osa**

OÑATI

**1.** Ez zait justua iruditu emaitza; Eibarrek bi penalti izan ditu alde, eta epaileak ez ditu adierazi. Hortaz, Eibarrek gehiago merezi zuela iruditzen zait. Jokoari dagokionez, ez da partidu ona izan, baina bigarren mailako partiduak horrelakoak izaten dira.

**2.** Egia esan, zaila ikusten dut Realak denboraldi ona egitea. Gustatuko litzaidake berriro ere Reala lehenengo mailan izatea, baina uste dut aurtengoa oso denboraldi zaila izango dela donostiarrentzat.



**Eneko Garcia**

OÑATI

**1.** Emaitza Eibarren aldekoa izan beharko litzateke; Realak ez du ezer egin. Lehenengo zatian, esaterako, Eibar nagusi izan da. Realak ez du ezer egin eta, azkenean, penalti bidez egin du garaipenaren gola.

**2.** Realak jokalari gazteez osatutako taldea sortu du eta horrek esan gura du harrobian konfiantza jarri dutela Realeko entrenatzaile eta zuzendaritza taldeak. Hala ere, Realak denbora beharko du talde sendoa sortu eta maila ona emateko.

**PREFERENTE MAILA** > HIRUKO TXAPELKETA

# Mondrak irabazi du Mojategin jokatutako Arrasate Hiria futbol txapelketa

Aloña Mendi 1-0 mendean hartu zuen Mondrak atzo jokatu zen txapelketako partidu erabakigarrian

UDAk, Aloñak eta Mondrak aste bukaeran hasiko dute preferente mailako txapelketa



**GELDIKETA** Argazkian, Gorka Otamendi, UDAren aurkako norgehiagokan, bere taldeko jokalariak begira dituela. JOSETXO ARANZABAL

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Preferente mailako futbol festa egon zen atzo Mojategi futbol zelaian. Liga txapelketa hasi aurreko azken lagunarteko partiduak jokatu zituzten Aloñak, UDAk eta Mondrak.

Arrasate Hiria futbol txapelketa jokatu zuten preferentean dabiltzan ibarreko hiru taldeek. Txapeldunaren saria Mondra taldeko jokalari Ruben Ruedak jaso zuen, elkarteko presidente Jose Luis Azkarateren eskutik.

**HARMAILAK, BETETA**

Oñati, Aretxabaleta eta Arrasateko zale asko joan zen Mojategi futbol zelaira. Hala, harmailak bete egin ziren preferente mailako taldeek denboraldiari begira egindako fitxaketak ikusteko.

Hiruko txapelketa izanda, hiru taldeek elkarren aurka jokatu zuten: 45 minutuko zati bakarra jokatu zuten. Norgehiagoka bakoitzaren amaieran, penalti jaurtiketak egin zituzten.

Txapelketa hasteko, UDA eta Aloña lehiatu ziren. Partidua berdinketarekin bukatu zen (1-1).

Lehen gola Aloñak lortu zuen seigarren minutuan: Unai Arregik areaz kanpotik jaurtiketa ona egin zuen. Ordu laurden geroago, berdinketa lortu zuen UDAk, Gari Dublanek egindako golari esker.

Handik amaierara, bi taldeek gol gehiago egiteko aukerak izan zituzten. Hala ere, lehia berdinketarekin amaitu zen.

Penalti jaurtiketetan, UDAk eta Aloñak penalti bana huts egin zuten.

**OMENALDIA ARANARI**

Mondrak eta UDAk jokatu zuten bigarren partidua. Lehia hasi aurretik, Mondrako jokalariek baloi bat eta sinatutako kamiseta bat oparitu zizkioten Argider Aranari. Aranak Mondra utzi du, eta UDAko jokalaria da.

Bigarren lehia berdinketarekin bukatu zen. Arriagak penalti batekin aurreratu zuen Aretxabaletako taldea. Hamar minutu ondoren, Iker Lazpiurrek, buruz, berdinketa lortu zuen.

Hala, emaitzak ikusita, Arrasate Hiria Txapelketa hirugarren partiduan erabaki zen. Azken lehian, Aloña eta Mondra lehiatu ziren.

Joko ona egin barik, gol aukerak egin zituzten bi taldeek. Baina gol bakarra Mondrak egin zuen, eta berau Julen Herizek lortu zuen.

Halaber, Aloñak berdinketa lortzeko aukera paregabea izan zuen, baina Roberto Idigorasen errematea kanpora joan zen.

Hortaz, Herizen golari esker, Mondrak hiruko txapelketa irabazi egin zuen.

**PREFERENTEA**

Aste bukaeran hasiko dute preferente mailako txapelketa gureko hiru taldeek. Aloñak Azkoagainen jokatuko du Aurrera taldearen aurka; UDAk eta Mondrak, aldiz, etxetik kanpo jokatuko dute, aretxabaletarrek, Idiazabalen aurka, eta arrasatearrek, UPV taldearen aurka.



Ermuako ordezkaria, garaikurra jasotzen Jose Luis Azkarate eta Ruben Ruedaren eskutik. JOSETXO ARANZABAL

BERGARA HIRIA TXAPELKETA

## Ermuak irabazi zuen Bergara Hiria Txapelketako finala, Bergararen aurka

Bergara Hiria Txapelketako finala Bizkaiko preferentean jokatzen duen Ermua taldeak irabazi zuen. Zapatuan, Ipintza futbol zelaian jokatutako finalean, etxeko taldea menderatu zuen (2-1). Finalerako sailkapena egueneko eta egubakoitzeko finalerdiak irabazita eskuratu zuten: eguenean, Bergarak Soraluzeren aurka irabazi zuen (4-1), eta egubakoitzean, Ermuak Antzuola menderatu zuen penalti jaurtiketetan.

Finala berehala jarri zen bizkaitarren alde. Lehen zatiko bosgarren minuturako, bi goleko errenta zuten markagailuan (2-0). Hasierako minutu haietan, bizkaitarrek erakutsi zuten etxekoek baino maila altuago baten jokatzen dutela. Edozelan ere, Bergarak abantaila murriztu zuen, Imanol Cabanillasek egindako golari esker. Handik aurrera, etxeko taldeak aukera asko izan zituen partidua berdintzeko, baina ez zuten berdinketaren gola egiten asmatu. Hala, amaieran, Ermuak irabazi zuen Bergara Hiria Txapelketako finala.

Sari banaketa ekitaldia Ipintzan, futbol zelaian bertan, egin zuten, finala bukatu ondoren. Ermuako kapitainak jaso zuen txapeldunaren saria, eta Bergarako jokalariek, bigarrena.

Halaber, txapelketako jokalari onenaren saria Bergarako Gorka Martinezek eskuratu zuen. Martinezek hiru gol sartu zituen Soraluzeren aurkako finalerdian.

**LEB LIGA** > LAGUN ARTEKO PARTIDUA

# Puntu bateko aldearekin irabazi zuen Bruesak

## Melilla Baloncesto taldearen aurka jokatu zuen zapatuan, Eskoriatzan, lagun arteko norgehiagoka




**MATEA** Argazkian, Bruesak, Jose Amador, jokaldia amaitzen.
MIREIA BIKUÑA

BRUESA GBC

**72-71**

MELILLA BALONCESTO

**Bruesa GBC** > Arco, Hopkins (6), Uriz (6), Panko (18), Nocedal, Arteaga (14), Lopez (7), Martinez (2), Faverani (6), Sala (6) eta Amador (7).

**Melilla Baloncesto** > Gloger (9), Huertas (11), Albert (19), Ruiz, Ciorciari (6), Diaz, Iturbe (3), Zagorac (7), Southall (4), Vallmajo (10), Romero (2) eta Garcia.

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 14-17. Bigarren laurdena: 32-37. Hirugarren laurdena: 50-51. Laugarren laurdena: 72-71.

**MIREIA BIKUÑA** > ESKORIATZA

Eskoriatza Hiria hirugarren saskibaloi txapelketa Donostiako Bruesa GBC taldeak irabazi zuen zapatuan. Intxaurtxueta kiroldegian jokatutako lagun arteko partiduan, donostiarrekin batera LEB mailan jokatuko duen Melilla Baloncesto taldea menderatu zuen.

Bi taldeek partidu polita jokatu zuten. Lehenengo hiru laurdenetan, Melilla taldea izan zen nagusi; baina, laugarrenean, Bruesak lehia bere alde jarri zuen. Hala, emozioz beteriko bukaera ikusi genuen.

**MELILLA, HOBETO**

Pablo Lasoren taldea izan zen lehen bi jaurtiketak egin zituena eta lehen tartea zabaldu zuena (6-0). Edozelan ere, handik aurrera, Melillako taldeak menderatu zuen tartea. Hala, lehenengo tartearen amaierara, bost puntuko errentarekin iritsi zen (12-17). Halaber, tarte horretan, Bruesak hamar baloi galdu zituen.

Bigarren tartean, gauzak ez ziren asko aldatu. Paco Olmosek zuzentzen duen taldeak, Melillak, agindu zuen markagailuan. Lehenengo tartean lortutako abantailari eutsi ez ezik, zabaldu egin zuen: 17. minutuan, hamar puntuko tartea zuen (25-35).

Edozelan ere, atsedenean, Melilla taldea bost puntu bakarrik zen aurretik (32-37).

**BIGARREN BERDINKETA**

Atsedenean, Pablo Lasok emandako aginduei kasu eginez, Bruesak hobeto jokatu zuen, bai erasoan, eta baita defentsan ere. Hala, tarte hartan lortu zituen Bruesak partiduko bigarren berdinketa (45-45) eta puntu bateko abantaila izatea (50-49).Hortaz, partidua laugarren tartean erabaki zen.

Hiruko bi jaurtiketei esker, Melillak bost puntuko tartea zabaldu zuen (52-57). Halaber, Pablo Lasok eskatutako hutsarte baten ondoren, zortzi puntuko errenta zabaldu zuen Melillak (54-62). Edozelan ere, Bruesak 10-2ko partziala egin zuen; hala, lehia azken jokaldian erabaki zen.

Markagailuak 72-71 erakusten zuela, Bruesako jokalari Hopkinsek txapel bat jarri zion Melilla taldeko erasoko jokaldiari. Hantxe bukatu zen partidua.

HONELA IKUSI ZUTEN ZALEEK



**Mikel, Aitzol eta Asier**
Eskoriatza

Goi mailako saskibaloia ikusteko asmoz hurbildu ziren argazkiko hiru gaztetxoak Intxaurtxuetara. "Jokalari oso luzeak dira. Uste dugu partidu polita jokatuko dutela", esan ziguten. Haiek, Bruesa taldearen aldeko "apustua" egin zuten. Normalean, saskibaloia ikustera joaten direla aitortu ziguten.




**Jon, Beñat eta Iban**
Eskoriatza

"Egia esan, ez ditugu jokalariak ezagutzen", aitortu ziguten, "baina Bruesak irabaziko du". Partiduaren hasieran, bi taldeetako jokalariek egindako beroketa ariketak ikusten harrapatu genituen. "Intxaurtxuetan jokatzen diren partiduak ikustera etortzen gara", esan ziguten Jonek, Beñatek eta Ibanek.




Melillako kapitaina, plaka jasotzen.
IMANOL SORIANO

### Bi taldeek plaka eta garaikurra jaso zituzten txapelketan parte hartu izanaren oroigarri

Eskoriatza Hiria hirugarren txapelketa bukatu ondoren, sari banaketa ekitaldia egin zuten Intxaurtxuetan bertan. Bruesa GBCk eta Melilla Baloncesto taldeek plaka bana jaso zuten, Eskoriatza kirol elkarteko kideen eskutik, txapelketan parte hartzearen oroigarri modura. Halaber, garaikurrak jaso zituzten Bruesak, irabazlearena, eta Melillak, bigarren sailkatuarena.

Saskibaloi festa amaitzeko, kiroldegiko tabernan bertan, luntx batean parte hartu zuten partiduko jokalariek eta antolatzaileek. Halaber, Bruesa taldeko jokalariek hainbat autografo sinatu zizkieten, aldagela kanpoan zeuden zaletu gazteenei.

**Iñaki Merino** > Mondragon Unibertsitatea taldeko entrenatzailea

# "Epe luzerako proiektua egin nahi dut, eta helburu hori lortzeko egingo dut lan"

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

**Iñaki Merino gasteiztarra da Mondragon Unibertsitatea taldeko entrenatzaile berria. Esperientzia handiko entrenatzailea da, eta "ilusioarekin eta gogo handiz" etorri dela aitortu digu. Urriaren 6an hasiko den denboraldi berriaren inguruan hitz egin dugu harekin.**



Iñaki Merino, Mondragon Unibertsitate taldeko entrenatzailea. JOSETXO ARANTZABAL

**Zergatik erabaki zenuen Arrasatera etortzea? Erabaki samurra izan da?**

Ointxe elkartearen eta bion arteko hartu-emana urtarrilean hasi zen. Ordutik, talde nagusiaren partidu batzuk ikusi ditut, eta elkarteak esku artean zituen ekintzak ezagutu nituen. Halaber, nirekin hartu-emana izan zuten elkarteko kideek jarrera ezin hobea izan zuten. Horregatik guztiagatik, Mondragon Unibertsitatea taldeko ardura hartzea erabaki nuen.

Edozelan ere, zalantzak izan nituen. Gure arteko hartu-emana hasterako, nik denboraldi berrirako beste asmo batzuk nituen. Halaber, Arabako Federazioarekin lan egiten nuen harrobiko taldeekin.

Hala, Arrasatera etortzeko, beste egitasmo batzuk alde batera utzi ditut.

**Ezagutzen duzu Mondragon Unibertsitateak jokatuko duen maila?**

Bai. Ni saskibaloizale amorratua naiz. Hortaz, maila honetako talde gehienak ezagutzen ditut.

Zapatu arratsaldeak libre ditudanean, saskibaloia ikustera joaten naiz; berdin zait zein mailatako lehia den.

**Entrenatzaile lana onartu aurretik, ezagutzen zenuen Arrasateko taldea?**

Bai. Azken denboraldietan, partidu asko ikusi ditut. Hala, orain bi denboraldi, EBA ligara igotzeko Mugarri Alkesak Iruñean jokatutako azken lehiak ikusi nituen.

Halaber, Arabako Federazioarekin lan egin dudanez, selekzioetako jokalariak ezagutzen ditut. Hortaz, Imanol Zeziaga, Beñat Barberena eta Antxon Hernandez ezagutzen nituen.

**Une honetan, denboraldiaurrean zaudete buru-belarri. Orain arte ikusi duzunarekin gustura zaude?**

Momentuz, oso gustura nago. Taldeak duen giroa ikusgarria da; jokalariek erakutsitako jarrera, ezin hobea; eta lanerako duten gogoa, itzela.

Denboraldiaurrea garai gogorra da; bada, jokalari guztiek lanerako gogoa dutela erakutsi didate. Horregatik guztiagatik, ez dut inongo kexarik.

**Taldeak bi baja garrantzitsu ditu denboraldi berrirako, Beñat Barberena eta Iker Lizarriturri, eta jokalari berri bat, Igor Peña. Taldearen jokoa asko aldatuko da?**

Egia esan, zentimetro asko galdu ditugu, eta hori barruko jokoan antzemango dugu. Hortaz, gure estiloa zertxobait aldatu beharko dugu: defentsa erasokorragoak egin beharko ditugu.

Igor Peña gasteiztarra jokalari ona da; ez da oso luzea, baina ezaugarri onak ditu.

Edozelan ere, talde honek gauza oso onak ditu; hiruko jaurtitzaile oso onak daude; partidu asko jokatu dituzte elkarrekin, eta, gehienetan, joko sistema bera erabili dute. Hortaz, ni ez naiz hasiko taldea goitik behera aldatzen. Nire aldaketak poliki-poliki sartu ditut denboraldiaurrean.

**"Aurre denboraldian, jokalariek erakutsitako jarrera ezin hobea izan da"**

**"Aurten gehiago kostako zaigu norgehiagoka samurtasunez irabaztea"**

**Adinari begiratuta, iaz baino talde gazteagoa duzu.**

Iaz, gazte mailako taldeak denboraldi bikaina egin zuen; hala, gazte mailako taldetik sei jokalari igo dira senior mailara. Hortaz, iaz baino talde gazteagoa dugu, bai, baina erakutsi didate lanerako gogo handia dutela.

**Mugarri Alkesak azken bi denboraldietan EBA ligarako faseak jokatu ditu. Hori hobetzea nahiko zaila izango da.**

Hobetzeko, noski, EBA ligara igo beharko genuke. Edozelan ere, Ointxeko kideek ez didate helburu hori jarri denboraldi berrirako.

Kontutan hartu behar da taldea asko berritu dela, gazte mailako jokalari berriak ditugu-eta. Halaber, bi baja garrantzitsu ditugu, eta gure jokoa aldatu egingo da. Hortaz, denboraldi amaierara begira, helburuak zehaztea baino nahiago dut ondo entrenatu eta partiduz partidu joan.

Ointxe elkarteak egindako proposamena onartu nuenean, garbi utzi nien nire proiektua epe luzerako zela.

Halaber, badakit jokalariak eta zaleak partidu ia guztiak irabaztera ohitu direla. Niri irabaztea gustatzen zait, beti, baina, aurten, zailtasun gehiago izango ditugu.

**Denboraldi berria hasi aurretik, lagunarteko norgehiagokarik jokatu duzue?**

Oraingo astean bertan, hiruko txapelketa bat jokatu dugu. Datorren astean, Euskal Kopako lehen partidua jokatuko dugu Arrasaten, Ados Saskibaloia taldearen aurka (iazko MapyTv). Iaz lortutako emaitzengatik sailkatu gara txapelketa honetarako. Denboraldiaurreko azken bi asteetan, Burgosko talde baten aurka norgehiagoka bikoitza jokatuko dugu. Bitartean, entrenatzen jarraituko dugu.

**Txapelketako lehen norgehiagoka non jokatuko duzue?**

Lehenengo mailako txapelketa urriaren 6an hasiko da. Guk lehen partidua Donostian jokatuko dugu, Cafes Aitona taldearen aurka. Bigarren jardunaldiko lehia Iturripen jokatuko dugu. Goierri Verkol taldearen aurkako partidua, urriaren 13rako, zapaturako zegoen iragarrita; baina aurreratu, eta egubakoitzean jokatuko dugu.

**Denboraldiaurreko entrenamendu batzuk Antoñan egin dituzue, eta beste batzuk, Iturripen. Instalazioak gustatzen zaizkizu?**

Partiduak Iturripen jokatuko ditugu; badakit, euri asko egiten duenean, itoginak daudela, eta oso arriskutsua dela. Ea arazo hori lehenbailehen konpontzen duten!

**Denboraldia hasteko gertu zaudete?**

Denboraldiaurrean egindako lanaren emaitzak ikusten hasteko gogoa daukat. Denok gaude lehiatzen hasteko gogoarekin.

## Beñat Barberenak EBA ligan jokatuko du Utebo taldearekin

EBA ligara igotzeko azken partiduan, Mugarri Alkesa taldearen aurkari izan zen Desarrollo Utebo taldean jokatu du denboraldi berrian Beñat Barberena arrasatearrak. Hortaz, denboraldi berrian, EBA ligan jokatuko du Zaragozako taldearekin.

Entrenamendu batzuetan parte hartu ondoren, Utebo taldeko entrenatzaile Slobodan Vukcevic-ek argi berdea eman zion Barberenaren fitxaketari. Hala, abuztuan, Utebo taldeko webgunean, fitxaketaren berri eman zen. Jokalari gazte berri asko fitxatu ditu Aragoiko taldeak. Azken asteotan, entrenamendu saio gogorrak egin ondoren, zapatuan jokatu zuen Zaragozako taldeak denboraldiaurreko lehen norgehiagoka. Denboraldiaurrean egindako lana erakusteko, Bizkaiko Santurtzi taldearen aurka lehiatu ziren Uteboko kiroldegian.

Desarrollo Utebo taldeak irailaren 23an hasiko du liga txapelketa, Ensaya taldearen aurka.

**IKASTAROA** > ESKALADA

# Harkaitz handietako ikastaroa antolatu dute

Eginon emango du ikastaroa, irailaren 22an eta 23an, Gipuzkoako Goi Mendi eskolak

Ikastaroan parte hartzeko eskatzen den baldintza bat mendian federatua egotea da

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Gipuzkoako Goi Mendi eskolak antolatuta, irailaren 22an eta 23an, harkaitz handietako eskalada ikastaroa egingo dute Araban, Eginon. Izenematea gaur hasiko da.

**HELBURU NAGUSIAK**

Eskaladan eskarmentua dutenenei zuzenduta dago ikastaroa; aurreratzeko, aseguratzeko eta ainguratzeko teknikak jakinda, bide luzeak igo nahi dituzten eskalatzaileei zuzendua dago Eginoko ikastaroa, hain zuzen.

Helburu nagusia luzera nabarmeneko eta ekipatu gabeko bideak efikaziaz eta segurtasunez eskalatzen ikastea izango da; horretarako, horman egonaldi luzeak egin eta aurreratze artifizialaren teknika bereziak praktikatu beharko dira. Hortaz, Gipuzkoako Goi mendi eskolak antolatutako ikastaroa espezializazio mailan kokatu dute.

**MATERIALA NOLA ERABILI**

Bi egunetako ikastaroan, hainbat eduki landuko dira; tartean, materiala nola erabili. Ikasleek eskalada materiala erabiltzen ikasiko dute, eta baita materialak dituen mugak zeintzuk diren ere. Bestalde, progresio teknikak landuko dituzte, hornitutako eta erdihornitutako hormetan. Gainera, eskalada libreko eta artifizialeko teknikak ikasiko dituzte: iltzeak sartzea eta behinbehineko baliabideak, beste batzuen artean.

**IZENEMATEA ETA PREZIOA**

Gaur hasiko da izena emateko epea. Gaurtik irailaren 13ra bitartean, 128 euro ordaindu beharko da, eta irailaren 14tik aurrera, berriz, 154 euro. Prezioaren barne daude eskola teorikoa eta praktikoak, ikastaroaren edukia jasotzen duen txosten teknikoa eta ikastaroa egin izanaren agiria. Prezioaren barne ez daude bidaiak eta otorduak.

Derrigorrezkoa da mendian federatua egotea ikastaroan parte hartzeko. Baita trebakuntza ikastaroa egina izatea edo sokatalde buruan praktikatzea.

Informazioa eta izenematea Gipuzkoako mendi federazioan egin behar da: 943 46 14 40 telefonoan edo *federatuak@gmf-fgm.org* helbide elektronikoan, astelehen, eguazten eta eguenetan. Lehenengo eguneko hitzordua irailaren 22an izango da, goizeko bederatzietan, Eginoko elizan. Han, irakasle eta ikasleen arteko topaketa izango da.



**ESKALADA** Irudian, eskalatzailea Araotzen haitzetan gora. ARTXIBOA

**INSTALAZIOAK** > AGORROSIN

# Agorrosingo kirol gunea itxi egingo dute 10etik 14ra

Bestalde, bainuetxeko ateak beste bi aste gehiagoz itxiko dituztela adierazi dute.

**A.G.** > BERGARA

Bergarako Agorrosingo kirol eremua itxita egongo da irailaren 10etik 14ra bitartean, garbiketa eta konponketa lanak egiteko. Behin lanak amaitutakoan hasiko dira kirol ikastaro eta jarduerak, irailaren 17an. Ordutegia ohikoa izango da: 07:00etatik 22:00etara.

**GARBITZE TRATAMENDUAK**

Kirolgunea itxita egongo den egun horietan, hainbat lan egingo dituzte; tartean, legionella tratamendua eta desinfektazio sakona egingo dituzte.

Bestalde, bainuetxeko ateak beste bi aste gehiagoz itxiko dituzte, egin berri diren lanen ostean, bukatu beharreko lan asko baitaude oraindik.

Bergarako kirol zerbitzuek jakinarazi dute, bestetik, ekainean amaitu ziren ikastaro eta jarduera guztiak irailaren 17an hasiko direla berriz. Ekintza hauetan baja eman ez duten kirolariek, beraz, automatikoki bere plazari eutsi egingo diote.

Ikasturte berrirako ekintza berriak prestatzen ari direla ere adierazi digute, baina hauen berri aurrerago azalduko dute.




**AGRROSIN** Garbitze lanak egingo dituzte Agorrosingo kirol gunean. ARTXIBOA

**TXIRRINDULARITZA** > ESPAINIAKO ITZULIA

# Velascok eta Irizarrek ez dute hasi berri den Espainiako Itzulian parte hartuko

Burgosko itzuliko bigarren etapan, erorikoa izan zuen Velasco arrasatearrak

Irizarrek Poloniako itzulian hartuko du parte; irailaren 10ean hasiko da itzulia



**IBARREKOAK** Velasco eta Irizar, artxiboko irudi batean. GOIENKARIA

**A.G.** > BERGARA
Jokoan den Espainiako Itzulian parte hartu gabe geratu dira Iban Velasco eta Markel Irizar ibarreko txirrindulariak. Velasco min hartuta dago eta, ondorioz, ezin izan zuen zapatuan itzuliko lehenengo etapan egon.

**ERORIKOA BURGOSKO ITZULIAN**
Txirrindulari arrasatearrak erorikoa izan zuen Burgosko Itzuliko bigarren etapan, abuztuaren 15ean; ondorioz, erradioa, kubitua eta klabikula hautsi zituen.

Hurrengo egunean, ebakuntza egin zioten Bilboko San Francisco Javier ospitalean, eta orain igeltsuarekin dago. "Irailaren 12ra arte egon behar dut igeltsuarekin, eta gero, errehabilitazioa egin behar dut", dio Velascok. Gainera, aurtengo denboraldia bukatutzat jo du arrasatearrak.

**ITZULIRAKO TOKIA**
"Etapa hasi baino lehenago, Igor Gonzalez de Galdeanorekin egon nintzen, eta Espainiako Itzulian parte hartzeko tokia nuela esan zidan", gaineratu du Velascok. Baina zortea ez zuen alde izan, eta egun berean erorikoa izan zuen.

Markel Irizarrek ere ez du parte hartuko: "Esperantza neukan itzulian parte hartzeko; hortaz, pena da han ez egotea", esan du. Datozen egunetan, irailaren 10ean, hain zuzen, Poloniako Tourrean hartuko du parte txirrindulari oñatiarrak.

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO MAILA

# Hiruko eskubaloi txapelketa, zapatuan, Bergaran

Arrasate, Bergara eta Urola lehiatuko dira Labegaraietan jokatuko den txapelketan

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA
Denboraldiaurre modura, hiruko eskubaloi txapelketa jokatuko da zapatuan, Bergarako Labegaraieta kiroldegian. Bertan, Euskadiko Txapelketan lehiatuko diren Bergara eta Arrasate taldeek jokatuko dute. Hirugarrena Zumarragako Urola izango da. Escolapios taldeak Federazioarekin dituen arazoak konpontzen ez baditu, Zumarragako taldea ere Euskadiko Txapelketan lehiatuko da.

Hortaz, goi mailako eskubaloia ikusteko aukera izango dute zaleek Labegaraietan.

Hiruko txapelketa denez, hiru taldeek elkarren aurka partidu laburrak jokatuko dituzte: hamabost edo hogei minutuko bi zati. Lehenengo partidua arratsaldeko laurak eta erdietan hasiko da.

Arrasatek eta Bergarak irailaren 29an hasiko dute aurtengo txapelketa.

**ALOÑA MENDI**
Iaz, Kopa Txapelketa bakarrik jokatu ondoren, Aloñak senior mailako taldea izango du lehian. Hala, Aloña Mendiko mutilen taldeak lehenengo erregional mailan jokatuko du.


**DERBIA** Bergarako eta Arrasateko pasa den denboraldiko irudi batean. ARTXIBOA

# Debagoieneko WEBGUNEAK




**AHOLKULARITZAK**
**ASEGI**
www.asegim.com
**ESTRADOS**
www.consultoriaestrados.com

**AKADEMIAK**
**BASTIDA**
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK
**BZ SISTEMAS**
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
**MARRUBI**
www.marrubi.com

ANTZINAKO ALTZARIAK
**ZUMADIA**
www.zumadia.com

ARETOAK
**360 ARETOA**
www.360aretoa.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK
**MARIA JESUS**
www.mjargazki.com

AROZTEGIAK
**ARREGI**
www.goiena.net/blogak/arregi
**AZKARATE**
www.goiena.net/blogak/azkarate

ARRANDEGIAK
**ITSAS EDER**
www.goiena.net/blogak/itxaseder

ASEGURUAK
**BRIZ ASEGURUAK**
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
**LAGUN ARO**
www.seguroslagunaro.com
**WINTERTHUR**
www.axawinterthur.es

AUTO – KONTZESIONARIOAK
**4QUATTRO4**
www.4quattro4.com

BIDAIA AGENTZIAK
**BARCELO**
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA
**OSKAR VITORIA**
www.goiena.net/blogak/vitoria

EGUZKI OIHALAK
**TOLDOS LETE**
**www.toldoslete.com**

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK
**ARETXARGI**
www.goiena.net/blogak/aretxargi

ELEKTRIZITATE MATERIALAK
**SETALDE**
www.setalde.com

ELKARTEAK
**EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL FEDERAZIOA**
www.goiena.net/blogak/ehmff

ERAIKUNTZAK
**CONSTRULAN**
www.construlansl.com

ERROTULOAK
**PANDO**
www.goiena.net/blogak/pando
**ROTUDENAK**
www.rotudenak.com

ESTETIKA ZENTROAK
**ANGELA**
www.angelaestetika.net
**GUZTIZ EDER**
www.goiena.net/blogak/guztizeder
**LILURA**
www.goiena.net/blogak/lilura
**MAIER**
www.goiena.net/blogak/richimaier

FISIOTERAPIA ZENTROA
**EKIN**
www.goiena.net/blogak/ekin

GARAJEAK / KONPONKETA
**AUTOS ARETXA**
www.autosaretxa.com
**AUTOS RIBELOGA**
www.autos-ribeloga.com
**GALLASTEGI MOTOR SPORT**
www.goiena.net/blogak/gallastegi
**JC RACING**
www.goiena.net/blogak/jcracing

GARBIKETAK
**HEMEN**
www.hemen-garbiketak.com
**DENETIK GARBITASUN MEKANIZATUA**
www.goiena.net/blogak/denetik

GIMNASIOAK
**IRUDI SPORT**
www.goiena.net/blogak/irudisport
**ZAINDUZ**
www.goiena.net/blogak/zainduz

GOZOGINTZA EKOLOGIKOA
**ETA INTEGRALA**
**GALGORRI**
www.goiena.net/blogak/galgorri

HARATEGIA
**LANDALUZE**
www.goiena.net/blogak/galgorri

HAUR PARKEAK
**OKIPARK S.L**
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEAK
**URDEKI**
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIAK
**MONDRAGON LINGUA**
www.mondragonlingua.com
**LA PUERTA AL INGLES**
www.goiena.net/blogak/puerta-ingles

HOTELAK
**HOTEL MONDRAGON**
www.hotelmondragon.com

IKASTETXEAK
**ARETXABALETA INSTITUTUA**
www.iaretxabaleta.com
**ARIZMENDI IKASTOLA**
www.arizmendi.ikastola.net
**ELKAR-HEZI IKASTETXEA**
www.elkarhezi.com
**MONDRAGON UNIBERTSITATEA**
www.mondragon.edu

ILE-APAINDEGIAK
**RICHI**
www.goiena.net/blogak/richimaier

INDUSTRIA HORNIDURAK
**SUMINISTROS UGARTE**
www.suministrosugarte.com

INFORMATIKA
**DCA COMPANY**
www.dcacompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOA
**HARRILUR**
www.harrilur.com

INMOBILIARIAK
**ANBOTO**
www.inmoarrasate.com
**ARRIETA & SAN MIGUEL**
www.arrietasanmiguel.com
**KOROSTI**
www.inmokorosti.com
**UDALATX**
www.udalatx.com

ITURGINTZA ETA BEROGINTZA
**URKO MANTENIMIENTO, S.L.**
http://www.goiena.net/blogak/urko

JANARIAK
**GERTU**
www.goiena.net/blogak/gertu

JANTZI DENDAK
**MARKIEGI**
www.goiena.net/blogak/markiegi
**UDALAITZ**
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK
**BASTER ALDE**
www.baster-aldejatetxea.com
**DRAGON ORIENTAL**
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
**DUKIENA**
www.goiena.net/blogak/dukiena
**MAULANDA MERENDERUE**
www.goiena.net/blogak/maulanda
**OTZETA**
www.goiena.net/blogak/otzeta
**TABERNA BERRI**
www.goiena.net/blogak/tabernaberri

KALAMUA
**KLOROFILA**
www.klorofila.com

KIROL DENDAK
**LAINO. SKATE & SNOW**
www.laino.info

KONGRESU ETA BILKURAK
**GANDIAGA TOPAGUNEA**
www.gandiagat opagunea.com

LANDETXEAK
**ARTEAGA**
www.arteagalandetxea.com
**ATERBE**
www.aterbe.com
**UXARTE**
www.uxarte.net

LANTEGI ETA TAILERRAK
**BATUAK S.A.**
www.batuak.com
**LINEAS LASA**
www.lasa.es
**PERFIPAR**
www.goiena.net/blogak/perfipar
**TALLERES CARPINSA S.L.**
www.carpinsa.com

LEIHOAK
**ARGI-PLASTIK**
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
**EGO**
www.goiena.net/blogak/ego

LORADENDAK
**EKILORE**
www.goiena.net/blogak/ekilore
**MAYTE LORADENDA**
www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK
**KORO ZABALETA**
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OKINDEGIAK
**AIASTUI**
www.goiena.net/blogak/aiastui
**OGIZUN**
www.goiena.net/blogak/ogizun

OPARIAK
**MERKEOPARI**
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK
**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**
www.goiena.net/blogak/multiopticas

OSTALARITZA
**GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK**
www.goiena.net/blogak/garaia
**ANTONIO BENITO**
http://www.antoniobenito.net

PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA
**FORMAK**
www.formak.net
**IPAR PROJECT**
www.iparproject.com

PUBLIZITATE AGENTZIAK
**ADOX**
www.adoxnet.com
**AKORT-PUBLICIDAD**
www.akort-publicidad.com

SUKALDERAKO ALTZARIAK
**BASTIDA**
www.goiena.net/blogak/bastida

TABERNAK
**EZKUTU**
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
**ORLY**
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
**GUREA**
www.goiena.net/blogak/gurea
**HAMAIKA… TABERNA**
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
**ZIRIPOT**
www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK
**GANESHA**
www.goiena.net/blogak/ganesha

TAXIAK
**GORKA GARAI**
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK
**GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA**
www.aizue.com
**ARRASATEKO EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA**
www.goiena.net/blogak/aebpn

UMEENDAKO ARROPA
**HAURTXOA**
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERAMIKAK ETA BAINUAK
**URBIETA**
www.goiena.net/blogak/urbieta
**GELATZU**
www.gelatzu.com

ZERBITZU DIGITALAK
**ATAI**
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILEAK
**ELEJALDE**
www.goiena.net/blogak/elejalde

**Bisita ezazu:**
**www.goiena.net/merkatua**

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.



**> ROCKA**
Azkena Rock Jaialdian egon dira hainbat entzule debagoiendar **> 24**



**> POESIA**
Poesia Orduak izango dira Donostian, Ana Toledorekin **> 24**

**> JUANITO SAIZAR**
Aramaion bizi da, baina Bilborekin loturagatik ezagutzen dute askok, Bilbora autobusa gidatzen du-eta. Baina, autobusean ez ezik, motorrean ere ibiltzen da **>**





**DANTZAK** Aurreko edizioan, 2005ean egindakoan, Iparraldeko dantzak ikusteko aukera egon zen. GOIENKARIA

**OÑATI** > JAIALDIA

# Iparraldea Oñatin jaialdia aurkeztuko dute bihar Laixanek eta Klaxkek

11:00etan izango da hitzordua eta egitarauaren nondik norakoak azalduko dituzte

Iparraldea Oñatin jaialdiak bihar hasi eta hilaren 16ra arte iraungo du

**EDURNE BURGAÑA** > OÑATI

Iparraldea Oñatin jaialdiaren bigarren edizioa egingo dute Oñatin bihar hasi eta 16ra bitartean. Herriko Laixan euskara elkarteak eta Klaxk txokolate kofradiak Udalarekin batera antolatutako jaia da. Prentsaurrekoa egingo dute bihar Oñatiko kultura etxean, Santa Marina plazan, jaialdia aurkezteko. 11:00etan hasiko da eta, bertan, Amaia Kerexeta Laixan elkarteko koordinatzailea, Anton Azpiazu Klaxk txokolate elkarteko presidentea eta Ainhoa Galdos Oñatiko Udaleko alkateordea egongo dira.

**INDARRAK HARTUTA**

Aurreko edizioa 2005 urtean egin zuten Oñatin. Laixan elkarteko Amaia Kerexetak azaldu duenez, helburua "Oñatin egiten diren gauzak zabaltzea zen eta da. Muga hauetatik kanpo zerbait egin nahi genuen, eta Iparraldea herrira ekartzea erabaki genuen. Izan ere, muga handia dago Iparralde eta Hegoaldearen artean, eta muga txikitzea zen beste helburuetako bat. Tartea handia izan arren, ez gaude hain urrun, eta harremanak sortu nahi genituen".

Lehenengo jaialdian lortutako emaitzekin oso pozik dago Kerexeta: "Jende asko ibili zen herrian, eta orain egingo dugun jaialdia antolatzeko indarra eman zigun horrek".

Iparraldea Oñatin jaialdiaren barruan, egitarau zabala antolatu dute. Bihar hasi eta 16ra arte, margo erakusketa zabalik egongo da kultura etxean. Egun garrantzitsuena irailaren 15a izango da. II. Txokolatearen Artisau Azoka egingo dute plazan, eta kontzertu bikoitza gozatzeko aukera egongo da, besteak beste.

Hori baino gehiago ere ekarriko dute Iparraldetik Oñatira. Bihar emango dute guztiaren berri.

**MUSIKA** > AZKENA ROCK JAIALDIA

# Ikusle gutxiago, baina eskaintza interesgarriak aurtengo Azkena Rocken

Aurtengo edizioa bi eguneko jaia izan da: gune txikiagoa gertatu dute beste urte batzuetan baino

Talde handiak ez dira hain handiak izan, baina ertainek sorpresa galanta eman dute



**AMAIERA** The Answer talde irlandarrarekin amaitu zen aurtengo Azkena Rock jaialdia. ARGAZKI PRESS

**I.B./E.B.** > BERGARA

Aurtengo Azkenak bi berezitasun izan ditu: batetik, diru faltagatik-edo, kartel osoa nahiko berandu jakinarazi zutela, eta bestetik, Gasteizko jaialdia desagertzera zihoan zurrumurruak egon zirela. Azkenean, osatutako multzoa nahiko gorabeheratsua izan da, eta talde handiak ez dira hain handiak izan: Tool izan da bat, eta bestea, MC5. Hala ere, betiko moduan, tamaina ertaineko taldeen artean, sorpresa galantak izan ziren. Jaialdia bi egunetara mugatu dute, eta Mendizabalako gune aproposa txikitu. Aurreikuspenak bete, eta aurreko edizioetan baino jende gutxiago joan da.

Egubakoitzeko programa Bartzelonan bizi diren neska-mutil euskaldunek hasi zuten: Las Furias. Makarrismoa, probokazioa eta punk-rocka egiten dute. Ostean, Madrilgo Los Coronas egon ziren. Txundituta utzi zuten jendea, Europan euren pareko rock-and-roll eta surf talde instrumentalik ez dagoelako. Josele Santiago etorri zen ostean, Los Enemigos taldekoa; bere barneko ipuin eta pasarteak kontatuz biluztu egin zen. Gero, bluesa beste hainbat estilorekin batzen duen Two Galants aritu zen, eta ostean esku hartu zuten Brant Bjork & The Bros-ek. Ez zuen jakin egiten zuena jendeari transmititzen.

AEBetako sustraiak berreskuratzeko tendentzia handia dago, eta horren eragileetako bat da Giant Sand taldea. Howe Gelb-ek gidatuta, countrya, rocka eta folka batu zituzten maisuki, betiko moduan. Ilundu ahala, ia ahaztutako legenda bat igo zen eszenatokira: Roky Erickson. Psikodeliaren aitetako bat da, eta, azken hamarkadetan, osasun arazoek mugatuta, bakarka jarraitu du rock ilun, sustraidun eta energikoa egiten. Talde oso beteranoa eduki zuen alboan, beharbada beteranoegia ere. Baina ondo lagundu zuten, eta historikoa izan zen emanaldia.

Eskandinavian joera handia dago rockaren hastapenetako doinuak berreskuratzeko, eta hala egiten du Diamond Dogs talde erraldoiak ere. The Faces, Rolling Stones eta antzerako taldeen izpiritua aireratzen du.

**ZAPATUA, ROCKEROAGOA**

Azkeneko bi edizioetan, Last Tour International enpresak izaera oso ezberdineko taldeak ekarri ditu, Azkenarekin ez direnak ondo ezkontzen. Aurtengoa Tool izan da. Askok metal doinuetan kokatzen dute taldea, baina askoz urrutiago doa: metala egiten dute, rocka, grungea, giro hipnotikoak eta musika progresiboa. Kantuak garatuak eta aldakorrak dira, hasieratik bukaerara. Eszenaratzea ere oso berezia da, argi asko erabilita, baita pantailak ere, eta ikusleekin ia ez dute harremanik: hotzak dira. Baina jende asko joan zen eurak ikustera.

Egubakoitzekoa amaitzeko, gaueko ordu biak pasatuta eta Tool bezalako talde dentso baten ostean, Heavy Trashetorri zen: ordu txiki horretan, Azkenan zegoen ia jende guztia dantzan jartzea lortu zuten.

Zapatua rockeroagoa izan zen. Zapatila marka baten iragarkia irabazteagatik, Hoey & The Mussels taldeak esku hartu zuen. Atzetik, eta eguzki gogorpean, Sexty Sexers taldea etorri zen. Berako gazteek beste behin ere erakutsi zuten rock-and-rolla zainetan daramatela, eta ikuskizun guztietan dena ematen dutela. Suediatik etorritako Clawfinger taldea entzuteko aukera ere egon zen. 90eko hamarkadan oso ezagun egin zen rap, rock eta metal nahasketa gogorrarekin, eta aspaldiko kantak jotzera etorri ziren.

New Yorkeko Super 400 taldea sorpresa ikaragarria izango zelako zurrumurrua zebilen, eta halaxe izan zen: bateria efektibo bat, ederki abestu eta gitarrari su garrak ateratzen zizkion mutila, eta trantze hutsean baxua jotzen zuen neska ikaragarria. Cream, Neil Young eta antzekoen giro parekoetara eraman gintuzten: oso klasikoak baina itzelak.

Azken 25 urteotan garagearen ikur den The Cynics entzun genuen ostean. Abeslariak, armonika zein pandereta eskuan, abesti ezagunenak eskaini zituen. Estatu Batuetako taldeekin jarraituta, Mooney Suzuki taldea saiatu zen hasieretako MC5ren high energy-a agertokira eramaten, baina ez zuten osotasunean lortu. Ostean, Australiako Hoodoo Gurus. Rocka egiten dute, nahiko melodikoa, power-pop-a; emanaldi dotorea egin zuten, eta abeslariak ahalegin berezia egin zuen gaztelaniaz berba egiteko.

Halako batean, zapatuko talde ezagunena: DKT/MC5. Jatorrizko bateriaren ordez, beste musikari bat aritu zen. 60ko hamarkada amaierako klasiko hutsak irregulartasunez eskaini zituzten. Oraingoan, Dictators taldeko Manitoba izan zuten hainbat kantu abesten laguntzen.

Azkena, The Answer talde irlandar gazte baina kementsua. Hard-rocka egiten dute, bluesa eta antzeko doinuak, energia eta sinesgarritasun handiarekin.

**EMANALDIA** > POESIA

## Maite Toledo antzuolarra Poesia Orduak jaialdian egongo da

Eguenean eta egubakoitzean izango dira emanaldiak, Victoria Eugenian

**EDURNE BURGAÑA** > ANTZUOLA

Poesia Orduak jaialdia antolatu dute eguen eta egubakoitzerako Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. Errezitaldiak eta emanaldi musikatua egingo dituzte, eta tartean, Maite Toledo antzuolarrak parte hartuko du.

Eguenean, Miren Agur Meabe, Felipe Juaristi, Koldo Zubeldia, Tere Irastortza, Patxi Lopez de Tejada, Edu Zelaieta eta Maite Toledo ariko dira errezitatzen eta, ostean, Bihotz Bakartien Klubekoek *Katamalo* ikuskizuna eskainiko dute. Jon Maia bertsolariak aurkeztuko du ekitaldia.

**SARRERA, DOAN ETA MUGATUA**

Egubakoitzean, Lucien Etxezaharreta, Leire Bilbao, Juankar Lopez Mugartza, Joan Mari Irigoien, Castillo Suarez eta Igor Estankona izango dira irakurraldia eskainiko dutenak. Jarraian, Juan Ramon Makusoren *Hiri gorazarre* musipoemaren emanaldia ikusi eta entzun ahal izango da. Irati Jimenez kazetari eta idazlea izango da egun horretan aurkezle lanak egingo dituena. Gainera, bai irailaren 6an eta baita 7an ere, Oihane Igerabide harpajolea izango dute lagun idazleek, errezitatzen duten bitartean.

Victoria Eugenia Antzokirako sarrerak mugatuak izango dira, doakoak eta gonbidapen bidez. Bertara joan nahi dutenek Elkartean bertan egin beharko dute erreserba aldez aurretik, 943 27 69 99 telefonora deituta edo *eie@idazleak.org* posta elektronikora idatzita. Eguneaen bertan, leihatilan hartuko beharko dira gonbidapenak.



**ANTZUOLARRA** Maite Toledo. GOIENKARIA

> LITERATURA

### 'Ama Zerrajera' liburua uste baino hobeto saltzen dabil

Arrasateko Zerrajeraren historia kontatzen duen liburua kaleratu zuten, *Ama Zerrajera*, eta uste baino hobeto eta azkarrago saltzen dabil. Egileek eurek ere ez zuten espero horrelako harrerarik.

Mila ale atera zituzten, baina soilik 325 ipini zituzten saltzen, gainontzekoak banatu egin zituztelako. Arrasateko Elkar liburudendan, adibidez, 10 egunetan, 122 ale saldu dituzte. Beraz, bat eskuratu nahi duenak azkar joan beharko du liburudendara. 10 euro kostatzen da *Ama Zerrajera* liburua.


Eraman dotoretasuna
zure etxera
gelatzu s.l.
Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51



# III. UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA LEHIAKETA



**Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak**



**ELIXAMENDI.** Bergarako Angiozar auzoko Maindaon dagoen Arrate baserriaren ateko zirrikitutik ikusten den farola bakartia.Abuztuaren 27an ateratako argazkia da. /Argazkia: Aitziber Etxeberria Aranzabal /Bergara



**ILUNTZEA VILAMOS-EN.** Lleidako Vilamos herrian (Val d'Aran) iluntzea. Pirinioetako leku eder, lasai eta bitxienetariko bat den horrek bertan galtzera gonbidatzen gaitu. /Argazkia: Martin Uriarte /Arrasate.



**URREZKO ATEA.** 2006ko udan hartutako argazki horretan, AEBetako San Franciscoko Golden Gate zubia agertzen da. Izugarrizko ur korronteen testigu izan ziren egileak altuera horretatik ere. Normala aldamenean dagoen Alcatraz kartzelatik inork ihes egin ez izana itsasoz! /Argazkia: Zuriñe Velez de Mendizabal /Arrasate



**VIEDMA GLAZIAREA.** Argazki honetan ikusten denez, Viedma glaziarearen azpian sartzeko aukera izan genuen. Azken urteotan glaziareak atzera egin duenez, azpian sartzeko aukera sortu da. Azpialdean harria dago. Argazkia 2005eko udan ateratakoa da, eta bertan, Iratxe Uria agertzen da. /Argazkia: Gorka Marzan /Bergara

## Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabeak)
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz *argazkiak@goiena.com* helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2007ko irailaren 17a.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, etab.).
- Astero argitaratuko dira *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 1eko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.

## Sariak:



- **1. saria: Olympus E-400 reflex** argazki kamera digitala, bi objektibo aldagarriekin Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- **2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarentzat, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afaria edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

**Babeslea:**

kutxa

**Laguntzaileak:**

kiñu argazkilariak

Arrasate Bidaiak BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA

GURE AMETSA JATETXEA

ASTEBURUA...

## Juanito Saizarrekin

# "Obsesio bihurtzen da libre ditudan aste bukaera apurrak antolatzea"

Saizarrek asteburu askotan lan egin behar izaten du, eta gainontzekoak antolatzen, nahikoa lan edukitzen duela dio

Gidatzea gustatzen zaio, baina ortuan ibiltzea ere bai, eta emaztearekin paseoan ibili edo perretxikoak batzen ditu

**EDURNE BURGAÑA** > ARAMAIO

Juanito Saizarrek 54 urte aurten egin ditu, eta 30 daramatza autobus gidari lanetan; "30 urte handi, eta motz". Izatez berastegitarra da, baina Aramaion bizi da. Aste barruan zein asteburutan, lan egitea tokatzen zaio Saizarri. "Urteak 52 asteburu baditu, oporretako lau edo bost kenduta, gainontzekoetatik 20 jai hartzeko konpromisoa daukagu. Beraz, geratzen direnetan, lan egin behar izaten dut", diosku. Hala ere, asteburuak bere erara moldatzen asmatzen du.

**ETXEKO LANAK, ETA KANPOKOAK**

Jai hartu beharreko 20 asteburuak nola antolatu jakin ezinda egoten dela dio Saizarrek: "Gutxi aprobetxatu dudan sentsazioa geratzen zait. Gutxi direnez, gauza asko egin nahi izaten ditut. Ospakizun guztietara joaten, asteburu asko betetzen ditut. Oraindik urtebete atzeratutakoak antolatzeko ditut. Obsesio bihurtzen da asteburuak antolatzea: mugatuta gaudenean, daudenak aprobetxatu beharra edukitzen da".

Aramaioko auzo baten bizi da Juanito, etxe bakar baten. "Bertan, ortua eta fruta arbola batzuk ditut, eta astean egiten ez ditudan lanak egiteko erabiltzen dut asteburua. Zapatu goiza, adibidez, andreak etxea pasatzeko dauka, eta beti esaten dit laguntzeko. Baina, aldi berean, kanpoko lanak ere egoten direnez egiteko, hor egoten gara borrokan, bai edo ez. Aukeran, neuk nahiago ditut kanpoko lanak. Baina denak dira egin beharrekoak, gustuko izan edo ez. Gainera, gauza batzuk gustura egiten dira, baina garbitze kontuak, edo erre beharrak, ez. Edo belarra ebakitzea, hamabost egunera berriro agertzen da-eta".

Baina etxeko lanak ez dira zapatuan egiten dituen gauza bakarrak: "Eguerdian, seme-alabekin lasaitasuna edukitzen dugu, eta gauean, hiru bikote batzen gara afaltzeko. Lana eduki arren, hamarrak ingururako libratzen naiz eta, askotan, eurak afalduta daudela azaltzen banaiz ere, lagun giroan egoteko aukera polita izaten da, elkarrekin egon eta barre batzuk egiteko".

Domekan ere, badaki zer egin Saizarrek: "Mendi bueltatxoa edo paseotxoa egiteko erabiltzen dugu. Perretxiko denboraldia hastean joaten gara biltzera: ni baino zaleagoa andrea da, eta biok joaten gara. Bazkaldu aurretik, txakolin pare bat ere hartzen ditugu. Andrea futbolzalea da, eta arratsaldeetan joaten da , eta horrek lotzen gaitu irteteko. Norberaren kasa geratzen gara, eta iluntze partean, goiz erretiratu, astelehenean goizean hasten naizelako lanean".

**LANEAN, ITSU ETA GOR**

Egubakoitzean, oporrak hartu zituen. Ordularia eskumuturretik kendu eta lasai dabil. Baina, lanean dagoenean, gauzak ezberdinak dira: "Asteburuan lan egiteak bi gauza ekartzen ditu: nik lan egin beharra, eta lanaren eraginez, parrandan daudenekin erlazioa edukitzeak ematen duen inbidia. Izan ere, parrandazalea naiz, edo izan naiz, behintzat".

Baina ez du batere arazorik eduki: "Kontuan eduki behar da batzuk lanean daudela eta beste batzuk parrandan. Bakoitzak bere papera bete behar du, eta batez ere, parrandan daudenak ulertu. Ze akaso neu egongo naiz hurrengo astean paper berean. Errespetua gordetzen ez denean, ez ikusten edo ez entzuten ikasi behar da. Haserretzea alperrik da; eurak ere haserretzea eragin dezake, eta horrek giro bat sortzen du emankorra ez dena. Gainera, autobusera sartzen diren hiru lagunetik bat, bere izenez deituko dut, eta horrek nolabaiteko lasaitasuna-edo ematen du: ez dute iskanbila askorik sortzen, ezagunak direlako".

Errepidean astakeriak ikusi ditu: "Presak daude, irabazten ez direnak gainera. Oraintxe ikusiko ditut edonola aurreratzen, arriskatzen, eta pixka bat aurrerago, auto ilara batean geldirik". Errespetu falta izugarria dagoela dio gidariak: "Arazoa da ez dakigula konpartitzen daukagun apurra. Errepide bat badago, guztion artean erabili behar dugu, eta badago tendentzia bat, uste dugula norbera libre utzi behar gaituztela, eta egin dezakegula nahi duguna. Baina ez. Konturatu behar gara alboan datorrenak ere bere tokia behar duela. Banatu egin behar da, tarta bat balitz bezala".



EDURNE BURGAÑA

### Lanean, eta lanetik kanpo, gidatzea du gustuko Saizarrek

Soldaduzka egin zuenerako, gidabaimen guztiak aterata zeuzkan Juanito Saizarrek. Autobus gidari izatea da bere lana, baina orain, motorrean ere ibiliko da. "Motorra erosi dut semearekin erdizka, eta ibiltzeko asmoa daukat. Domeka arratsaldeetan, emaztea futbol partiduak ikusten dagoen bitartean, ni motorrean ibiltzera joango naiz". Gidatzea ofizio izateaz batera, asko gustatzen zaio: "Ez naiz nekatzen. Eguna amaitu eta beste hainbeste kilometro egin behar dudala esanez gero, ez zait inporta. Ez dut trabarik ipintzen autoa hartzeko. Txarra izaten da parrandarako asmoarekin irteten dugunean; edanaren kontuak atzera botatzen du. Eroatearren, oraintxe bertan ere eseri eta edonora joango nintzateke".

Edana eta autoa batzen diren unean, badaki zer egin Saizarrek: "Horrelakoetan, andreak hartzen du autoa. Azken finean, erantzukizuna handiagoa da nirea. Gidabaimena galduz gero, lana galtzen dut".

# IRAGARKI SAILKATUAK

| 1. ETXEBIZITZAK | 3. LOKALAK | 5. IRAKASKUNTZA | 7. ANIMALIAK | 9. HARREMANAK |
|---|---|---|---|---|
| 101. SALDU | 301. SALDU | 501. JASO | 701. SALDU | 901. AGURRAK |
| 102. EROSI | 302. EROSI | 502. EMAN | 702. EROSI | 902. HARREMANAK |
| 103. ERRENTAN EMAN | 303. ERRENTAN EMAN | 503. BESTELAKOAK | 703. EMAN | 903. DEIAK |
| 104. ERRENTAN HARTU | 304. ERRENTAN HARTU | | 704. BESTELAKOAK | 904. BESTELAKOAK |
| 105. ETXEAK OSATU | 305. BESTELAKOAK | | | |
| 106. BESTELAKOAK | | | | |

| 2. GARAJEAK | 4. LANA | 6. MOTORRA | 8. DENETARIK | 10. RELAX |
|---|---|---|---|---|
| 201. SALDU | 401. ESKAINTZAK | 601. SALDU | 801. SALDU | |
| 202. EROSI | 402. ESKAERAK | 602. EROSI | 802. EROSI | |
| 203. ERRENTAN EMAN | 403. BESTELAKOAK | 603. ALOKATU | 803. EMAN | |
| 204. ERRENTAN HARTU | | 603. KONPONDU | 804. HARTU | |
| 205. BESTELAKOAK | | 604. BESTELAKOAK | 805. TRUKATU | |
| | | | 806. GALDU | |
| | | | 807. AURKITU | |
| | | | 808. BESTELAKOAK | |

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza salgai, adosatua. Estreinatzeko. Deitu 607 79 00 37 zenbakira.

**Aretxabaleta.** Erdialdean, 72 m2-ko txapitula (buhardilla), 16 m2-ko garajearekin. Merkea. 659 64 67 38.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai, Otalora 2, azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun, bizitzera sartzeko moduan. Deitu 675 71 37 27 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Etxea salgai San Josepe kalean. 60 metro koadro. 2 logela. Sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Trastelekua du. Guztiz berriztatua. Deitu 667 53 70 00 zenbakira.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Santa Marinan. 3 gela, komun bat, jangela-egongela, garajea eta trastelekua. Ikuspegi ederrak. 653 73 24 62.

**Arrasate.** Grupo San Juanen etxebizitza salgai. 60 metro koadro. Azkeneko solairua, igogailuarekin. Ganbara eta sotoa ditu. Berogailua. 606 25 92 80.

**Arrasate.** Grupo San Juanen. 60 m2 erabilgarri. Azkeneko solairua, igogailuarekin. Ganbara, sotoa, oso eguzkitsua, bakarkako berogailua. Bizi izatera sartzeko. 619 25 46 69.

**Arrasateko** Erguin auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, komuna, sukaldea eta bi balkoi. Oso eguzkitsua da, etxeak kanpoaldera ematen du. 72 $m^2$. 660 46 47 24.

**Bergara.** Boni Laskurainen 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Erdia moldatua. Bizitzeko gertu. Prezio interesgarria. Deitu 628 26 65 77 zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Guztiz berritua. Berogailua eta ganbara. Deitu 619 41 39 72 zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. Bizitzera sartzeko gertu. Oso polita. Eguzkitsua. Deitu 685 72 40 30 telefono zenbakira.

**Eskoriatza.** Etxebizitza salgai San Pedron. Guztiz berritua. 73 m2, 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Eguzkitsua. 615 70 99 18.

**Eskoriatza.** Duplexa salgai. 110 metro koadro. Bizitzera sartzeko moduan. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela, jangela eta garajea. Deitu 618 28 80 14 telefonora.

**Eskoriatzan** etxebizitza salgai, Intxartxueta kalean. 71 metro koadro. 2 logela, egongela, sukaldea, balkoia, ganbara, igogailua eta berogailua. Guztiz jantzita. Berehala emateko. Prezio negoziagarria. Deitu 650 01 67 38 zenbakira.

**Oñati.** San Lorentzo auzoan 93 m2-ko etxebizitza salgai. 3 logela, 2 komun, egongela, estudioa, ganbara eta garaje handia. Deitu 20.00etatik 22.00etara. Deitu 943 53 42 10 zenbakira.

**Oñati.** 120 m2-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. Deitu 676 39 36 93 telefonora.

**Oñati.** Apartamentua salgai San Lorentzon. Saloi-sukaldea, 2 logela, komuna eta terraza handi bat. Garajea aukeran. Deitu 658 75 22 37 edo 943 78 18 38 telefono zenbakietara.

**Oñati.** Eraikitzen ari den duplexa salgai. 4 logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Deitu 617 85 85 41 zenbakira.

**Oñati.** Etxea salgai San Lorentzon. Berriztatuta. Ganbara eta garajea. 3 logela. Prezioa adosteko. Deitu 656 74 80 47 telefono zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Hiru logela, sukaldea eta komuna. Eskola Politeknikotik gertu. 550 euro. Deitu 605 73 82 74 edo 943 53 64 55 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Iturriotz kalean 3-4 ikaslerentzako etxe aproposa errentan ematen dut; Arrasate erdi-erdian. 629 23 93 48.

**Arrasate.** Erdigunean etxebizitza errentan ematen da. Lau logela ditu. Deitu 630 54 57 38 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza alokagai daukat erdialdean. Logela, sukaldea eta egongela ditu; bikote batendako aproposa. 530 euro. Deitu 619 34 88 52 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan ematen da, ikasleendako. Unibertsitatetik gertu. Deitu 945 44 52 42 edo 680 28 87 98 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Etxea errentan ematen da. Deitu 665 70 75 01 telefono zenbakira.

**Deba.** Etxea errentan ematen da uztailean, herri erdian. Deitu 615 72 15 03 zenbakira.

**Donostia.** Bi neska ikaslerendako etxea errentan Donostia erdialdean, 2007-08 ikasturterako. Deitu 620 06 35 92 telefono zenbakira.

**Gandia (Valentzia).** Apartamentua errentan ematen da, hondartzan, irailean. Bi logela, igerilekua. Deitu 635 31 26 11 zenbakira, mesedez.

**Oñati.** Bi logelako etxebizitza Olakua auzoan, ikasturtean zehar bakar-bakarrik. Deitu 660 40 06 75 telefonora.

**Peñiscola.** Apartamentua. Hondartzatik gertu. Parking eta igerilekuarekin. Iraila. Deitu 943 79 48 82 edo 605 75 61 69 zenbakietara.

**Pinedan** (Tarragona) apartamentua errentan ematen da. Hondartzatik eta PortAventuratik gertu dago. Igerilekua dauka. Deitu 637 22 78 82 telefono zenbakira.

**Vera (Almeria).** Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. Deitu 657 73 94 25 telefono zenbakira.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Etxea errentan hartuko nuke. 636 49 46 87.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 629 75 40 22.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aramaion** etxebizitza konpartitzeko pertsona bat behar da. 699 28 99 06.

**Arrasate.** Logela bat alokairuan hartuko nuke. 667 56 13 24.

**Eskoriatzan** ikasle-etxebizitza bat osatzeko pertsona bat behar da. Unibertsitate ondoan. Deitu 653 13 93 08 edo 606 20 19 48 telefono zenbakietara.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Lezaman. Deitu 647 08 00 16 telefonora.

**Bergara.** Garaje itxia salgai Zubiaurren. 37 metro koadro. 606 65 97 82.

### 202. EROSI

**Arrasate.** Garaje itxia erosiko nuke San Andresen. Deitu 699 49 14 32 zenbakira.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Garaje itxia emango nuke errentan Errekabarren kalean. Deitu 943 79 40 19 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Olarten, erdialdean. Deitu arratsaldez, mesedez. Deitu 616 70 78 91 zenbakira.

**Bergara.** Ibargarai kalean garajea errentan ematen da. Deitu 627 90 74 48 telefonora.

**Eskoriatza.** Garaje itxia errentan ematen dut. Gaztañadui kalean. Deitu 605 71 05 32 telefono zenbakira.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Bergara.** 140 metro koadro ditu, bi solairutan. Herriaren erdialdean dago eta sukalde eta industria aparailuz hornituta dago. Elkarte baterako aproposa da. 645 00 71 46.

**Aretxabaleta.** Lokala salgai Aretxabaletako erdialdean. Kafetegia izateko egokia. 290.000 euro. 635 72 59 40.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aretxabaleta.** Emakumea behar da haurrak zaintzeko. 610 33 67 04 da telefonoa.

**Aretxabaleta.** Emakumea behar da haurrak eskolara eramateko. 610 33 67 04.

**Arrasate.** 45 urtetik gorako emakumea behar da umeak zaintzeko. 656 74 97 11.

**Arrasate.** Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta edadeko pertsona bati laguntzeko. Irailetik aurrera. Goizetan bi ordu. 657 79 07 39.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egiteko. Deitu 615 70 72 41 zenbakira.

**Bergara.** Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. 669 53 97 03.

**ARRASATE**

**Taberna baten lan egiteko zerbitzariak behar dira. Euskaraz jakitea komenigarria.**
**680 67 22 93**
**617 60 84 45**

**Bergara.** Emakumea behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 943 76 50 63.

**Oñati.** Etxea garbitzeko eta umeak zaintzeko emakumea behar da. Deitu 626 55 77 99.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskaldun batek edozein lan egingo luke. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 943 08 12 80.

**Arrasate.** Nagusiak zainduko nituzke. Egun osoz edo egun erdiz. 676 59 53 17.

**Arrasate.** Orduka lan egingo nuke. Deitu 636 91 92 83 telefonora.

**Bergara.** Emakume bat gertu dago lan egiteko, goizetan: garbiketa lanak egiten edo umeak zaintzen. Deitu 639 02 00 81 telefono zenbakira.

**Bergara.** Emakume bat gertu lanerako. 677 05 99 99.

**Bergara.** Neska gaztea gertu umeak zaintzeko, arratsaldez. 650 23 34 98.

**Bergara.** Umea edo nagusiak zainduko nituzte eta etxeko lanak egin. Orduka. Deitu 637 02 07 11 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume bat gertu dago adineko pertsonak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko edo ordezko lanak egiteko. 649 63 23 24.

**Debagoiena.** Gizon gazte bat gertu dago garbitasun lanak egiteko, pertsona nagusiak zaintzeko edo ordezkapen lanak egiteko. 696 38 10 07.

**Debagoiena.** Mutil gazteak lan egingo luke eraikuntzan edo zerbitzari gisa. Paperak ditut. 628 76 57 34 edo 943 76 29 02.

**Debagoiena.** Neska euskalduna dendan lan egiteko prest. Deitu 690 14 36 68 zenbakira.

**Debagoiena.** Neska gazte bat gertu dago umeak zein nagusiak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile nahiz zerbitzari lanak egiteko. 663 46 93 60.

**Debagoiena.** Neska gaztea lan egiteko prest. 636 31 15 36 edo 943 76 29 02.

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanak egiteko eta umeak zein nagusiak zaintzeko. Deitu 659 35 09 30 telefonora.

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanak egiteko eta umeak zein nagusiak zaintzeko. Deitu 678 80 11 54 zenbakira.

**Debagoiena.** Umeak zein nagusiak zainduko nituzte eta etxeko lanak egin. Deitu 659 37 41 95 telefono zenbakira.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeles eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Ford Fiesta** salgai. Egoera onean. 1.200 euro. (Esther). 616 27 27 00.

**Peugeot 406** Coupe Hdi. Sei urte. Beti garajean. Egoera oso onean. 609 41 98 23.

**Peugeot Expert** furgoneta salgai. Egoera onean. 3.200 euro. 650 96 50 43.

**Seat** Inca. 3 urte ditu eta 30.000 kilometro. Egoera onean. Aire girotua dauka. 6.200 euro inguru. Deitu 629 91 80 15 telefono zenbakira.

**Volkswagen** Polo GT. 2008ko otsaila arte du Ibilgailuen Azterketa Teknikoa. 500 euro. Deitu 680 78 20 51 telefonora.

**W-Sharan** autoa salgai. 1996koa da. Egoera onean dago. Deitu 618 02 02 58 zenbakira.

## 7/ ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Emu (ostruka familiakoa)** bikote bat salgai. Modu onean. Deitu 943 78 61 92 zenbakira.

### 704. BESTELAKOAK

**Txori bat** aurkitu genuen abuztuaren 19an Arrasateko Juan Carlos Guerra plazan. Larua da eta luma beltzak ditu buruan. Zeurea bada edo zuretako gura baduzu, dei egizu. 661 73 37 92.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Astrolon teleskopioa** salgai. Deitu 943 79 41 31 zenbakira.

**Bergara.** Bizikleta estatikoa salgai. BH etxekoa. Kilometro gutxi. 70 euro (negoziagarriak). Deitu 627 75 81 94 zenbakira.

**Bizikleta estatikoa,** taka-taka bat eta sofa bat saltzen ditut. 678 40 57 04.

**Egurrezko** mahaiak eta aulkiak salgai. Prezio interesgarria. Deitu 607 46 83 66 zenbakira.

**Game Boy,** hiru joko, zorroa eta kargatzailea salgai. Oso ondo zainduta daude. 656 79 88 12.

**Gitarra.** Mosrite gitarraren kopia, Dillionek egindakoa. Edizio mugatua, kolore zuria. Estatu Batuetan erosi berria. 400 euro, negoziagarriak. Deitu 607 21 19 69 zenbakira.

**Kanpinerako txalet-denda** salgai. Jangela eta bina lagunentzako bi logela ditu. PVCzko sabaia du eta Altus markakoa da. 120 euro. Sukalde-denda opari. 943 79 57 64.

**Karabana** Mutrikun, zazpi metrokoa. Abantzea, kalefakzioa eta ur berogailua, komuna, dutxa eta sukalde hornitua. Mutrikuko Santa Elena kanpinean jarrita. 652 75 03 61.

**Karro-denda** salgai. 6 lagunendako. Egoera oso ona. Armairuak, sukaldea eta gehigarri guztiekin. Deitu telefono honetara. 645 73 13 94.

**Kronometro profesionala** salgai. Berria. 200 euro. (Nerea). 943 79 68 18.

**Mendi bizikleta** salgai. Bochentia marka: 54 neurrikoa, rockshop esekidura, Shimano aldagailuak. 800 euro. 617 78 74 07.

**Mendiko bizikleta** salgai. BH markakoa. Egoera onean. 100 euro. 686 20 03 31.

**Orbea** errepiderako bizikleta salgai. 400 euro. 667 66 12 40.

**Quinny Zapp.** Umeendako kotxea. Egoera oso onean. 100 euro. 667 31 37 45.

**Snow-ohola** salgai. Bi aldiz erabilita. Nitro markakoa. Drake loturak eta 43-44 zenbakiko botak. 645 72 25 24.

**Ume-kotxea** eta aulkia salgai. Jane Balmoral markakoak. Bebe Comfort aulkia eta bidaiarako kuma ere bai. Bainuontzia opari. Egoera oso onean daude. 200 euro. 943 79 59 34.

**Zodiac** txalupa motorduna salgai. 3,80 m luzeran eta 1,72 zabaleran. 25 zaldiko gasolina motorra. 665 70 36 49.

### 802. EROSI

**Lursaila** erosi nahiko nuke Eskoriatza inguruan, bertan ortua egiteko. 649 31 20 05.

**Txanponak** eta bankuko billete zaharrak erosten ditut. 688 61 85 02.

### 806. GALDU

**Elgeta.** Emakumezko jaka bakeroa eta umearen sudadera galdu ditut. 607 81 84 29.

**Perla** zuridun belarritakoa galdu nuen domekan Bergaran, Ibargaraitik Zubillagara dagoen bidegorrian. Deitu 638 15 81 14 telefono zenbakira.

**Txandal txaketa** gorria galdu dut Bergaran; seguru asko, parkean. 943 03 87 54.

**Umearen lepo-oihala** galdu dut Bergaran, Agorrosin eta plaza bitartean. Zuria da. (Jaione). 639 35 47 57.

### 807. AURKITU

**Bergara.** Belarritakoa (uztaia) aurkitu dut. Deitu 696 90 53 19 telefono zenbakira.

**Bergara.** Patinetea aurkitu dut Espoloian. Udaltzaingoan dago. 943 77 91 06.

**Bergara.** Umeen betaurrekoak aurkitu nituen Matxiategiko aparkalekuan, graduatutakoak. 685 70 85 57.

**Erloju** bat aurkitu nuen abuztuaren 13an Uribarri Ganboan. Inskripzio bat dauka. 669 65 48 87.

**Zilarrezko eraztun** bat aurkitu dugu Bergaran, Tximeleta ondoan. Izena du eraztunak. Deitu 685 71 51 93 telefonora.

### 808. BESTELAKOAK

**Tarot** kontsultak. Deitu 943 76 62 14 zenbakira.

**Iraialak 3: 140. zozketa**

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
**txokoa**

**Zorionak irabazleoi!**

Gaur, irailak 3, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

**Saridunak**

**Euskal Herria aldizkarirako urtebeteko BI harpidetza.**
- Damaso Uribesalgo Zuazua (Aretxabaleta)
- Itziar Larrañaga Aritzaga (Bergara)

**MUNDUMIRAko bi kamiseta.**
- Arantzazu Madinabeitia Erostarbe (Oñati)
- Pedro Bidaburu Otadui (Arrasate)

Sariak jasotzeko epea: 15 egun

**141. zozketako saria**




***Markak Gernika 1937***
**Bernardo Atxagaren azken liburuaren bi ale.**

**Harpidedun ez bazara...**

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
18 euro
2007 bukaera arte.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

**GOITB** > UDA

# Goiena Telebista etenik gabe aritu da lanean

Aurten, lehenengo aldiz, ez du etenik izan GOITBko programazioak uda sasoian; egunero emititu du

Egunero, bi orduan behin, 'Berriak' saioa eskaini dute, ibarreko berri garrantzitsuenen berri emateko




**LANEAN** Amaia Zabala kameralaria eta Arritxu Barruso kazetaria. IKER BARANDIARAN

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA
Aurten, lehenengo aldiz, Goiena Telebistak udako programazioa eskaini du; uztailaren 30ean hasi eta abuztu guztian barrena, lanean aritu dira GOITBko Larraitz Zeberio eta Arritxu Barruso kazetariak eta Jone Inuntziaga eta Amaia Zabala kameralariak.

**DENETARIKO ALBISTEAK**
Ohiko albisteak alde batera utzi eta beste albiste mota batzuk landu dituztela azaldu digu Arritxu Barruso GOITBko kazetariak. Izan ere, uda partean, eta batez ere abuztuan, jendea oporretan izaten da gurean. Hortaz, udal eta instituzio publikoetako langileekin harremanetan jartzea zailagoa izaten da. "Hori dela-eta, beste albiste mota batzuk landu ditugu; erreportaje txikiak egin ditugu. Ohikoa baino lan politagoa izan da", azaldu du Barrusok.

Hala, ibarreko herrietako jaietan izan dira Goiena Telebistako langileak; besteak beste, Aretxabaletako jaietan. Abuztuaren 14tik 17ra, tarte berezia izan zuten Aretxabaletako Andramari jaiek ibarreko telebistan.

Gainera, Arrasateko Udalak AHT dela eta egin zuen osoko bilkuran ere izan dira, eta, datozen egunetan, horren berri jasoko duzue bai telebistaren bidez ere.

Bestalde, txakurtegien gaineko erreportajea, opor osteko depresioa... hainbat gai landu dituzte telebistan.

Udako esperientziarekin pozik geratu dira bai kazetariak eta bai kameralariak ere. Ea datorren udan ere GOITBrekin dugun hitzordua.

## arrasate irratia

FM 107.7

**> Uda giroan: uda parteko albisteak 10:00**

Etzi, eguaztena, hasiko dituzte Arrasate Irratiko lankideek irratsaioak. Orain arteko programazioarekin hasiko dira eta, pixkanaka, ikasturte berriko egitasmoak aurkeztuko dituzte. Berritasun ugari ekarriko dizkigute.

**Eguaztenetik egubakoitzera**

**10:00-12:00** Uda giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren geltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia
**14:00** Uda giroan. (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

**Zapatua**

**10:00** Asteko gainbegiratua
*Uda giroan* irratsaioaren une onenez gozatzeko aukera izango dugu zapatu goizean

**Domeka**

**10:00** Asteko gainbegiratua

## zerbitzuak

TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

| | |
|---|---|
| Osakidetza (Larrialdia) | 943 46 11 11 |
| DYA (Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria (Elorregi) | 943 76 55 76 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | 943 53 47 20 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko ospitala | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 03 54 00 |
| Elgeta | 943 03 54 00 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 40 05 00 |

**DEBAGOIENA**

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Hondakindegi alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 943 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Aramaio | 945 44 53 74 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

## asteko hitzorduak

### Ikastaroa



BERGARA
**> Gazta-dastatze ikastaroa emango dute irailaren 6an kultura etxean**
San Martin jaien barnean, gazta-dastatze ikastaroa antolatu da. Ikastaroa Bergarako kultura etxean izango da, irailaren 6an, arratsaldeko zazpietan. Izenemateko azken eguna gaur izango da, kultura etxean.

### Erakusketa



ESKORIATZA
**> Espainiako Gerra Zibila nola ikasi den ikusgai Ibarraundi museoan**
Irailaren 16ra arte egongo da zabalik *Irakatsi gabeko irakasgaia. Espainiako Gerra Zibila eskolako eskuliburuetan* erakusketa. Espainiako Gerra eta Gernikako bonbardaketa nola irakatsi diren azalduko dute.

### Erakusketa



OÑATI
**> Iparraldea Oñatin egitarauaren barruan, margo erakusketa izango da**
Irailaren 4tik 16ra bitartean, Irkus Robles-Arangiz eta Gonzalo Etxeberria artisten margolanak egongo dira ikusgai kultura etxeko erakusketa gelan. Guztira, hainbat estilotako 80 bat margo erakutsiko dituzte.

## kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

# Gipuzkoako miraria gurean dago!

Aurtengo oporrak ere joan zaizkigu! Hainbeste denbora udako oporren zain egon ostean, konturatu barik pasatu dira. Izan ere, egin duen eguraldiarekin... udan gaudela sinistea ere zaila da!

Aurtengoa uda beroa izango zela esan zuten; bete-betean asmatu... Berriro ere eguraldi kontuekin. Euskaldunok zergatik egiten dugu berba horrenbeste eguraldi kontuez? Zergatik ote...

**"Gipuzkoako aurpegi ezagun ugari batu ziren zapatuan Ipuruan jokatutako derbian"**

Ikasturte hasi berria berotze aldera, gipuzkoarren arteko derbia Ipuruan. Han izan ziren Gipuzkoako zenbait aurpegi ezagun; **Odon Elortza**, **Markel Olano**, **Iñaki Galdos** oñatiarra, **Jose Luis Larrea**, ***Ondarru***...

Oporrak direla-eta, ez dago Debagoienetik irten beharrik izendatu berri duten Gipuzkoako lehenengo miraria ikusteko: **Arantzazu**. Hori da, behintzat, egunkari batean egin duten bozketak dioena. Datorren astean izango da Ama Birjina eguna, eta Atzeko kalekoek dagoeneko antolatu dituzte jaiak. Ospatu beharko dugu, bada!

## PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:
*astelehena@goiena.com*

## zorion agurrak



ARRASATE
**Andoni Azkarate**
Uztailaren 23an, 7 urte. Zorionak, familiako guztien partetik.



ARRASATE
**Asier Azkarate**
Uztailaren 23an, 7 urte. Zorionak, familiako guztien partetik.



OÑATI
**Naiara Campo**
Uztailaren 24an, 26 urte. Zorionak, koadrilakoen partetik.



OÑATI
**Joseba Molinero**
Uztailaren 26an, urtebetetzea. Zorionak, kirolari. Zelebrauku afai on batekin.



ELGETA
**Unax Azkorbebeitia**
Uztailaren 29an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat gurasoen eta anaia Martxelen partetik.



ARRASATE
**Itsaso Berezeibar**
Uztailaren 30ean, urtebetetzea. Zorionak, guapa, lankideen partetik.



ARRASATE
**Olatz Arantzabal**
Zorionak, Olatza! Kuadrilakuen partetik, belarri tirakada ederra eta besarkada haundi-haundi bat! Pa!



OÑATI
**Inaxio Arregi**
Uztailaren 31n, urtebetetzea. Zorionak, lankideen partetik.



OÑATI
**Xabat Azkoaga**
Abuztuaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak, familiakoen partetik.



BERGARA
**Oier Lopez de la Calle Rementeria**
Abuztuaren 1ean, 2 urte. Familiakoen partetik.



OÑATI
**Ane Arabaolaza**
Abuztuaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak, familiakoen partetik.



OÑATI
**Eneritz Lizarralde Barrena**
Abuztuaren 2an. Zorionak, prexioxa! Maribel, Pedro, Xabi, Iban eta Eliren partetik.



ARRASATE
**Istar Dapena**
Abuztuaren 3an, 11 urte. Zorionak familiakoen partetik!



OÑATI
**Helene Illarramendi**
Abuztuaren 4an, 10 urte. Zorionak, aitatxo, amatxo eta Juneren partetik.



OÑATI
**Maider Arregi**
Abuztuaren 6an, urtebetetzea. Zorionak, guapixima! Kontuz eguzkixakin... eta eulixekin! Lankidiak eta kuadrilakoak.



ARRASATE
**Itziar Gortazar**
Abuztuaren 7an, urtebetetzea. Zorionak, txirrindulari! Kuadrilakuen partetik, zorionak eta eta Kriston besarkadie... pa!



BERGARA
**Oier Garitano**
Abuztuaren 12an, urtebetetzea. Zorionak, mutil haundi!



BERGARA
**Markel Arzelus Perez**
Abuztuaren 22an, urtebetetzea. Zorionak, Markel, etxekoen partetik!



OÑATI
**Leire Lizarralde**
Abuztuaren 25ean, urtebetetzea. Zure eguna ondo pasa zenuelakoan, zorionak eta urte askotarako!



OÑATI
**Maialen Barrena**
Abuztuaren 29an. Zorionak eta urte askotarako! Zure urtebetetze eguna ondo pasa zenuelakoan, koadrilakoen partetik patxo bat!



BERGARA
**Ane Kortabarria Perez**
Abuztuaren 29an, 6 urte. Zorionak, Ane! Muxu asko, neska haundi! Etxekoak.



ARETXABALETA
**Julen Gutierrez**
Abuztuaren 29an, 2 urtetxo! Zorionak etxekoen partetik.



ESKORIATZA
**Marijo Souto**
Zorionak, Marijo! Azken urte hau ez dozu ahaztuko, ezta? 24 urte ia. Bueno, bueno, bueno, Marikarmen! Koadrilakoak.



ESKORIATZA
**Asier Souto**
Zorionak, Asier! Abuztuaren 31n, 23 urte. Koadrilakoen partetik. Bueno, bueno, bueno, Marikarmen!



OÑATI
**Esther Altube Madina**
Irailaren 2an, 35 urte. Zorionak eta urte askotarako, pott. Domekan Oñatiko tabernetan arrastoak utzi genituen zu topatzen joateko. Ja, ja! Ondo pasa zenuelakoan...



OÑATI
**Fernando Mugarza Igartua**
Irailaren 2an, urtebetetzea. Zorionak, Txenan, eta urte askotarako!Lehen bilbotar amateurra, oiñ bizkaitar peto-petoa!



OÑATI
**Amaiur Mendi Altube**
Irailaren 2an, 10 urte. Zorionak eta muxu potoloak zu maitatzen zaitugun guztion partetik. Zure urtebetetze eguna ongi pasa eta tarta handia jan zenuelakoan.



ANTZUOLA
**Julen Gezalaga Esnaola**
Irailaren 2an, lehenengo urtebetetzean, zorionak, pitxitxi! Familia eta lagunekin egun ederra igaro zenuelakoan, aitatxo eta amatxoren partetik.



BERGARA
**Maren Unamuno**
Irailaren 3an, 3 urte. Zorionak familia osoaren partetik.



BERGARA
**Unax Etxaniz**
Irailaren 3an, 3 urte. Familiaren eta Oiertxoren partetik, zorionak!



BERGARA
**Ane Azkarate**
Irailaren 4an, 6 urte. Urte askotarako, etxekoen partetik; bereziki, Uxue, ahizparen partetik.



DEBAGOIENA
**Mikel Aznarez**
Irailaren 4an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat, etxekoen partetik.



BERGARA
**Gorka Astaburuaga**
Zorionak eta urte askotarako, *majeton*! Zu be ya deittu geinke *treintañero*! Jajajaja! Ondo pasa eguna! Koadrilakoak.



ARETXABALETA
**Josu Uribarren Arrese**
Irailaren 6an, 2 urte. Zorionak pirata, eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
**Antziñe Mendia**
Irailaren 7an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi-handi bat lagunen partetik.

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

## jaiotakoak



**Mara Abanes Albisua**
Bergara > 3,750 kilo. Uztailaren 27an. Gurasoak: Amaia (Bergara) eta Jorge (Bergara). Argazkian, umea, amaren besoetan bapo.



**Uxue Ibabe Santamaria**
Aramaio > 2,360 kilo. Uztailaren 30ean. Gurasoak: Aitziber (Aretxabaleta) eta Ander (Aramaio). Argazkian, umetxoa, aitarekin.



**Mikel Uriarte Agirre**
Oñati > 3,510 kilo. Uztailaren 30ean. Gurasoak: Ana (Oñati) eta Ernesto (Oñati). Argazkian, umetxoa, bere kuman gustura lo.



**Enaitz Rueda Cabanillas**
Arrasate > 3,800 kilo. Uztailaren 31n. Gurasoak: Emi (Arrasate) eta Alberto (Arrasate). Argazkian, umea, gurasoen besoetan.



**Ane Guridi Arzuaga**
Oñati > 3,340 kilo. Abuztuaren 1ean. Gurasoak: Jaione (Oñati) eta Asier (Oñati). Argazkian, ume jaioberria, osaba Gaizkarekin.



**Ane Guridi Arzuaga**
Oñati > 3,340 kilo. Abuztuaren 1ean. Gurasoak: Jaione (Oñati) eta Asier (Oñati). Argazkian, ume jaioberria, osaba Gaizkarekin.



**Jesus Manuel Silva Ledesma**
Bergara > Abuztuaren 21ean. Gurasoak: Rose Marie (Bergara) eta Jesus Manuel (Bergara). Argazkian, bere arreba Rose Marierekin.



**Oihan Navas Fernandez**
Bergara > 3,390 kilo. Abuztuaren 31n. Gurasoak: Sonia (Bergara) eta Javi (Bergara). Argazkian, haur jaioberria, kumatxoan gustura.



**Aratz Ormaetxea Cid**
Bergara > 3,780 kilo. Irailaren 1ean. Gurasoak: Eider (Arrasate) eta Rafa (Bergara). Argazkian, haurra kuman.



**Haritz Garai Leturia**
Aretxabaleta > 3,310 kilo. Irailaren 2an. Gurasoak: Amaia (Aretxabaleta) eta Aitor (Aretxabaleta). Argazkian, umea.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

## hildakoak

- **Asun Peña Aranburu.** Bergaran, irailaren 1ean. 83 urte.
- **Maitere Urtzelai Ganboa.** Oñatin, irailaren 1ean. 61 urte.
- **Maria Elkorobarrutia Lazkano.** Oñatin, irailaren 1ean. 83 urte.

ESKELA

# Jabier Arantzeta Garaizabal

Habeko langilea

HABE EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

*Alaitasuna lagun*
*gutxitan serio*
*bizi-poza aldarte*
*nekea arerio*
*burrunba handi barik*
*egin duk ario*
*gure lantegiari*
*malko dario*



Elgetan, 2007ko irailaren 3an.

ESKELA

# Jabier Arantzeta Garaizabal

Goienako kolaboratzailea

Elgetan hil zen 2007eko abuztuaren 2an, 50 urte zituela.

GOIENAk bat egiten du senideen saminarekin.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Elgetan, 2007ko irailaren 3an.

## joan zaigu

### Jabier Arantzeta Garaizabal

**Euskara irakaslea eta GOIENKARIAko kolaboratzailea**



Elgetarra zen Jabier Arantzeta. Lagun giroan zirikatzailea, ironiazalea. Herriarekin eta herrigintzarekin lotura estua zuen. Udaleko zinegotzia izana eta azken hauteskundeetan ere Aralarko zerrendan aurkeztu da. Euskara irakaslea eta euskaltzalea. GOIENKARIAko kolaboratzaile fina. Gaixotasun batek jota, indar gutxirekin eta ahotsik gabe zebilen arren, azken unera arte idazten jarraitu zuen. Abuztuaren hasieran gure artetik joan zen, baina haren idatzizko berba umoretsuak gure artean geratuko dira.

**Iban Nikolai** > Didjeridoo jolea

# "Snow taularen zorroan sartzen dut didjeridoo-a"

OIHANA ELORTZA > OÑATI

**Oñatiko gaztelekuak antolatutako Kalean egitarauaren barruan etorri da Iban Nikolai Oñatira, bere didjeridoo-a aldean duela, noski. Udazkenean, instrumentu hori nola jotzen den ikasteko tailerra emango du Oñatiko gaztelekuan.**

**Non ikasi zenuen didjeridoo-a jotzen?**

16 urte nituenean, Londresera joan nintzen, arrebari bisita egitera, eta hango kontzertu baten ikusi nuen lehenbiziko aldiz instrumentu hori. Bere soinuak erakarri ninduen.

**Nolako soinua du?**

Soinu oso grabea eta erakargarria, antzinakoa. Sintetizadore baten soinuaren antza du. 19 urterekin, Londresera joan nintzen berriro, eta berriz entzun nuen. 20 urte bete nituenean, didjeridoo bat oparitu zidaten eta harrez gero jotzen dut. Egun, horretatik bizi naiz.

**Ze materialez daude eginda?**

Benetakoak termitek hustutako Australiako eukaliptoen enborrekin daude eginda. Badira banbuz edo tekaz eginda daudenak ere. Tailerretarako, plastikoz egindakoak ere erabili ditut nik, adibidez.

Tamainari buruz, 1,20 metro eta 1,50 metro arteko luzera izaten dute gehienek, eta soinua tamainaren araberakoa da. Didjeridoo guztiak ezberdinak dira.

**Nola eramaten dituzu bidaietara?**

Snowboard egiteko taulak gordetzeko zorro baten sartzen dut, bere estalki eta guzti.

TEST-A

**Herria:** Donostian jaiotakoa naiz, baina oiartzuarra naizela esaten dut beti. **Adina:** 30 urte. **Ikasketak:** Selektibitate artekoak. **Zaletasunak:** Bidaiatzea. Egiptora eta Brasilera joango nintzateke. **Gustuko filma bat:** Zinema aretoetara ez naiz askotan joaten, baina *Cadena Perpetua* filma dut gogoan. **Erositako azken CDa:** Portugalgo Uxu Khalus taldearena. **Astebururako plan on bat:** Itsas bazterrera joan eta hondartzan lo egin.

**Izan dituzu oporrak udan?**

Ez. Hala ere, hara eta hona ibili naiz, eta lan bidaiak izan arren, toki berriak ere ezagutu ditut, eta oporretan egon naizela ere esan dezaket.

**Oñatira etorritako taldekideekin jotzen duzu beti?**

Pascal Gaignek ezin izan du etorri, eta Sergio Callejo etorri da gitarra jotzera, baina gainerako kideok osatzen dugu Samar taldea, bai. Bost kide gara. Hala ere, bakarrik ere jotzen dut; bakarkako hiru disko ditut.

**Alboka jotzeko teknika berarekin jotzen da didjeridoo-a?**

Bai, arnasketa zirkularra izeneko teknika erabiltzen da bietan. Ezberdintasuna da, didjeridoo-a jotzeko, ezpainek bibratu behar dutela, eta albokan, kanaberak bibratzen duela.

**Mareatu arte egin behar zaio putz instrumentuari?**

Ez, ez. Birikak entrenatu behar dira pixka bat, baina ez da horrenbesterako. Birikak zaintzea da kontua.



KONTZERTUA Oñatiko Atzeko kalean jo zdu Nikolaik bere taldearekin. O.E.

## www.goiena.net

**Udako oporrak bukatu dira gehienondako. Aurten, diru asko gastatu duzu oporrotan?**




## biharamuna

Marijo Deogracias

### Deprea? Bai, zera...

Uda-herriek "graziarik gabeko itxura" zutela esan zuen atzo Teleberriko aurkezle **Africa Baeta**k. Baina, seguru nago opo osteko lehenengo lan egun bezperagatik baino eguraldiagatik izan dela. **Edorta Roman**ek ere ez du asmatzerik izan. Atzo ere hondartzakoa iragarri zuen, baina… Tira, etsi egin beharko dugu, amaitu baita jada urteko oporraldirik luzeena. **Imaz**ek bere iritzi artikulua idaztzi zuenetik ere hilabete luzea igaro da, nahiz eta oraindik hortxe ari diren, batzuek eta beste, ika-mikan; eta, Nafarroan ere, antzera: **Blanco** jauna saiatu da atzera, logikak azaldu ezin duena arrazoitzen.



**Groucho Marx** gogora ekarriz, abuztuan bere heriotzaren 30. urteurrena bete da, "Arazoak bilatu, aurkitu, diagnostiko faltsua egin eta okerreko erremedioak aplikatzeko artea da politika". Baliteke.

Osterantzean, dena berdin: etxera bueltako *deprea* gainditūta, lanera bueltakoa gainditu beharko dugu, gaurtik hasita. Ez da ordea hainbesterako izango; **Sara Vitoria** psikologoari irakurri diot *Goiena.net*-en "opor osteko depresioa askotan guk geuk sortzen dugula". Hortaz, ni lasai. Ez sortu eta zoriontsuago izango naiz, ikasturte hasieran behintzat!

## eguraldia



| MINIMOA | MAXIMOA |
|---|---|
| +15 | +20 |

Eguraldi freskoa izango dugu. Iparraldeko haizea nagusituko da, eta tarteka sirimiria egin dezake. Maximoak, 20ºC inguruan.

www.euskalmet.euskadi.net

iKER
SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
BAINUAK:
ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42
FAGOR

